



**Iraunkortasun
Memoria
2022**

Informazio
Ez -Finantzarioaren Egoera





Aurkibidea

1. Lehendakariaren/Zuzendaritza Nagusiaren gutuna	3
2. Copreci gara	7
3. Pertsona Erantzukideak eta Protagonistak gara	11
4. Planetarekin arduratsuak	33
5. Balio Diferentziala sortzen dugu Modu Iraunkorrean	42
6. Aberastasuna sortzen dugu, Garapen Komunitarioa bultzatzen dugu	58
7. Txostena egiteko prozedura	72

Planetarekin, pertsonekin eta aurrerapenarekin konprometituta



01 Lehendakariaren gutuna

“Etorkizun hobea, desberdina, inklusiboa, arduratsua, ekitatiboa, solidarioa eta gizarterako, ingurumenerako eta ekonomiarako JASANGARRIA egiteko ahaleginak batzen dituzten pertsonak gara”.



2022ko urtean pandemia atzean uzten joan gara, eta horrek ahalbidetu digu osasun ikuspegitik normaltasunerantz aurrera egitea, baina, halere, urte hasieran inork espero ez zuen beste krisi bat hasi zen munduan. Ukrainako gerra piztu zen, eta horrek eragin zuen energiaren eta erregaien prezioak neurritz kanpo igotzea, burtsak beharakada izatea eta Europan zein Amerikan prezioak oro har igotzea. Horrek eragin nabarmena izan zuen ekonomiaren garapenean, eta industria gehienen errentagarritasun mailari eragin zien bereziki. Gainera, linea zuriko sektorean, 2021ean eskari maila aparta eduki ondoren, merkatuaren geldialdi nabarmena pairatu genuen, batez ere 2022ko udatik aurrera, merkatuko eskariak gelditu egin zirelako eta, ondorioz, gure bezeroak stockez gainezka aurkitu zirelako ustekabeen. Urtearen erdialdean merkatuaren premietan aldaketa handia gertatu ondoren, ondo jakin dugu pertsona kopurua ere jarduerara egokitzen.

Hala ere, urtean zehar proiektu ilusionagarriak izan ditugu: Fagor Electronicarekin lankidetzan indukzio negozioa ezartzea, Copreci Turkiatik. Beste lantegi batera joan gara, eta bertan FAGOR Electronica ere kokatu da (EMSn dugun partnerra). Zaragozako MAEL enpresaren erosketa gauzatu genuen, eta indukzio fokuen hornitzaile bihurtu gara BSH talderako. Soluzio berritzaileak eta jasangarriak garatzen aritu gara, esaterako, mikroplastikoen kontrolerako soluzioa garbiketako negozioan eta soluzio elektronikoak barbakoen negozioan. Horrez gain, urte amaieran akordio bat sinatu genuen Egipton planta berri bat ezartzeko. 2023ko lehen seihilekoan martxan egongo da planta hori.

2022an Copreci Taldearen 2021-2024 aldirako Plan Estrategikoa garatzen jarraitu dugu. Plan Estrategiko horren eskutik, iraunkortasuna estrategian txertatu eta beste bultzada bat emateko lan egin dugu, eta, horrekin, gure kooperatibaren etorkizuna ziurtatzeaz gain, gure misioak markatzen duen garapen iraunkorra, ekonomikoa eta soziala sustatzen

lagunduko digu, barruan zein kanpoan, hurrengo belaunaldietarako kooperatiba eta mundu hobe bat uzteko.

Lan erreformak kooperatiben izaera berezia onartzen ez duen heinean, merkatuaren gorabeheri aurre egiteko zailtasun berriak sortu dizkigu, aldi baterako kontratazioak egiteko aukera nabarmen mugatzen baitu. Copreciko bazkideak bultzatu behar gaitu pauso bat aurrera ematera, gure protagonismoa handitzera, balioaniztasuna garatzera, balio erantsi handiagoa emateko bideak lantzeraz, taldeen eta proiektuen kudeaketan trebetasun berriak lantzeraz... denak oso erronka erakargarriak izanik, guztion artean eraiki nahi dugun Copreci berrirako bidean.

Euskara sustatzen ere jarraitu dugu, eta, barne gobernanzari dagokionez, organoen arteko dinamika berriak jarri ditugu abian, batzorde mistoen eta arloko bileren bidez, guztion artean eraikitzen eta kooperatiba sendotzen jarraitzeko.

Txosten honetan gure taldeak 2022an garatu duen jarduerari buruzko informazio zabala aurkituko duzue, gure izaera kooperatiboaren ikuspegitik, eta gobernantza, lan eremua, berdintasuna, iraunkortasuna eta barruan zein kanpoan sortzen dugun eragin positiboa deskribatuz, Gizarteari egiten dizkiogun ekarpenak barne. Gure proiektua sendotzeko lanean jarraituko dugu.

Gure eskerrik beroena egunero COPRECI proiektua hobetzen laguntzen duzuenoi.

Begirunez

Kuireka Etxebarria



“Las personas que formamos Copreci dibujamos y definimos nuestra ambición, la compartimos y la hacemos nuestra”.

“Pertsonak, Neutraltasun Klimatikoak, Balio Kate Lehiakor Zirkular eta Iraunkorra, Ekonomia Zirkularra eta Balio Proposamen Iraunkor bat Sortzea dira COPRECI Proiektuaren garapeneko ardatz nagusiak.”



Imanol Oleaga
CEO

“Iraunkortasunean lider aktiboak izan nahi dugu Sektorean”.

Ekonomia berri honen protagonista izan nahi dugu, lehiakorrak izan nahi dugu balio proposamen bereizgarri bat sortuz, eskaintzen ditugun produktu eta sistemetatik haratago, eta, aldi berean, inpaktu positiboa sortu ingurumenaren eta gizarte ongizatearen babeserako.

Iraunkortasuna gure Balio Proposamen Bereizgarriaren sorreran txertatzen dugu. Gure bide orriak gizarte, ingurumen eta gobernu onaren ikuspegitik ditugun konpromiso nagusiak definitzen ditu, bai eta gure jardueraren inpaktu positiboa eta etorkizuneko belaunaldientzat gure ondare kooperatiboa indartzea bermatzeko garapen estrategia ere.



Kontseilu Sozialeko Taldea

“Kontseilu Errektoreari eta Gerentziari laguntzen diegu enpresaren ikuspegitik eta bazkideen ikuspegitik anbiziotsua den proiektu kooperatibo bat garatzen. ”

Proiektu partekatua da. Enpresaren ikuspegitik eta bazkideen ikuspegitik anbiziotsua den proiektu kooperatiboa garatzen laguntzen dugu. Kolektiboari proiektu sozioenpresarialaren garapenaren berri emanez, eta kezka sortzen duten gai soziorabialak Kontseilu Errektoreari eta Zuzendaritza Kontseiluari helaraziz, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko orduan kontuan hartzeko.



Bitartekoen Plangintzako Taldea

“Onenak ditugu inguruan, merkatura garaiz iristeko, irtenbide iraunkorrek eta balio erantsi handigokoak eskaintzeko”.

“Aliantza teknologikoen, industrialen eta merkaturaren ekosistemaren bidez, gure posizioa indartzen dugu eta ingurumena errespetatzen duten produktuak eta sistemak garatzeko konpromisoa sendotzen dugu. Gure bezeroei laguntzen diegu negozioak eraldatzen, eskualdeak eraldatzen, aldaketa teknologikoak egiten eta beharrei erantzuten, eta aukera berriak sortzen ditugu, eraldatzeko irekiak izaten eta eraldaketak egiten laguntzen jarraitzeko”.



Bitartekoen Plangintzako Taldea

“Onenak ditugu inguruan, merkatura garaiz iristeko, irtenbide iraunkorrak eta balio erantsi handiagokoak eskaintzeko”.

“Aliantza teknologikoen, industrialen eta merkaturaren ekosistemaren bidez, gure posizioa indartzen dugu eta ingurumena errespetatzen duten produktuak eta sistemak garatzeko konpromisoa sendotzen dugu. Gure bezeroei laguntzen diegu negozioak eraldatzen, eskualdeak eraldatzen, aldaketa teknologikoak egiten eta beharrei erantzuten, eta aukera berriak sortzen ditugu, eraldatzeko irekiak izaten eta eraldaketak egiten laguntzen jarraitzeko”.



Berrikuntza, Produktibitate eta Industria Garapeneko Taldea

“Gure Berrikuntzak irakurtasunaren ezaugarri berriak barne hartzen ditu”.

“Garapenak egiten ditugu, klimako inpaktua ahalik eta txikiena izatea bilatuta eta ekonomia berriari zirkularragoa eta iraunkorrago izaten lagunduta. Elektronikaren arloko berrikuntza disruptiboen proiektuen zorro bat dugu garatzen, oinarriko funtzionaltasunari sendotasuna, efizientzia eta mantentgarritasuna emanez. Zibersegurtasun eta adimen artifizialeko teknologiak dituzten produktuak, balio erantsi handiagokoak, erresilienteagoak, iraunkorragoak eta kontsumitzailearentzat lagunkioagoak izango diren produktuak ekarriko dituztenak”.

“Gure Berrikuntzak iraunkortasunaren ezaugarri berriak barne hartzen ditu”.

“Garapenak egiten ditugu, klimako inpaktua ahalik eta txikiena izatea bilatuta eta ekonomia berriari zirkularragoa eta iraunkorrago izaten lagunduta. Elektronikaren arloko berrikuntza disruptiboen proiektuen zorro bat dugu garatzen, oinarrizko funtzionaltasunari sendotasuna, efizientzia eta mantenigarritasuna emanez. Zibersegurtasun eta adimen artifizialeko teknologiak dituzten produktuak, balio erantsi handiagokoak, erresilienteagoak, iraunkorragoak eta kontsumitzailearentzat lagunkoiagoak izango diren produktuak ekarriko dituztenak”.



Balio Kateko Taldea



Kalitateko eta Sistemetako Taldea

“Estrategian eta erakundearen iraunkortasuna txertatzea izan da Copreci proiektuaren garapena definitzen jarraitzen lagundu digun urratsa”.

“Gure ereduak eta ibilbideak ematen dizkiguten indarguneak gure zutabeetan daude (pertsonez, ekonomia eta gobernantza). Eta iraunkortasuna hiru eremuetatik (soziala-gizartea, ingurumena, eta ekonomia-gorbenantza) estrategian eta gure kudeaketa sistemetan holistikoki txertatzen agertzen dira aukerak.

Eraldaketa berdeak, digitalak eta teknologikoak aro berri bat markatzen dute, aro lehiakorrago eta erresilienteago bat. Klimarekiko konpromisoa eta ekonomia zirkularra bi sektore berri dira plan estrategikoaren bide orrian. Horrela, iraunkortasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa hobetzen lagunduko dugu”



Giza Baliabideetako Taldea

“Copreci osatzen dugun pertsonok gure anbizioa marrazten eta definitzen dugu, partekatu egiten dugu eta gure egiten dugu”.

“Guk, kooperatiba garenez, funtsezko zeregina dugu ekarpen honetan. Eta COPRECI bezala, horretaz arduratzen gara eta horretan laguntzen dugu.

Gizateriaren erronka sozial eta ingurumeneko erronka handien aurrean, eraldaketa proiektua pentsatzeak, horrekin emozionatzeak eta proiektua bera errealitate bihurtzeak mugiarazten gaituzte Copreciko pertsonok.

Gure aldaketa proiektuak ezagutuz ilusionatzen gara, eta protagonista bihurtzen gara horiek errealitate bihurtzeko”.

02 Copreci gara



2.1. Gure nortasuna

COPRECI Enpresa Talde Lider Globala da, eta mundu osoan du presentzia. Lerro zuria, Outdoor, Home Confort eta Sektore Profesionaleko osagaiak, funtzioetarako soluzioak, elektronikak eta etxeko ekipamenduaren fabrikatzaileentzako sistemak garatzen eta fabrikatzen ditu.

TALDEA, hain zuzen, COPRECI S. COOP. lantegi matrizeak, 1963an Aretxabaletan sortutako kooperatibak, eta mundu osoko hainbat eskualdetan (Amerika, Europa eta Asia) barreiatuta dauden hango sozietate partaideek osatzen dute. COPRECI nede erdi baino gehiago daramagu sektorean lider izaten. Lehen egunetik, zentzua eta sendotasuna eman dizkiogu balioa sortuz esperientzia osasungarriak, erosoak eta seguruak sortzen laguntzeko dugun asmoari, printzipio kooperatiboetan oinarrituta, eta aberastasuna sortzeko dugun gaitasunarekin, garapen sozial, ingurumeneko eta ekonomiko iraunkorrak bultzatu ditugu, presente gauden lekuetan.

- COPRECI DE MEXICO, SA DE CV EN GUADALAJARA 44940 JALISCO, MÉXICO
- COPRECI SYSTEMS, S.R.L. 31015 CONEGLIANO (TV), ITALIA
- COPRECI TR.LTD.STI. DILOVASI/KOCAELI, TURQUÍA.
- COPRECI CHINA EN 519040 ZHUHAI, CHINA
- COPRECI CZ, S.R.O. DVORCE U BRUNTÁLU, REPÚBLICA CHECA
- COPRECI USA 72209 LITTLE ROCK (ARKANSAS) USA

“Hazkunde ekonomikoaren, ingurumenaren babesaren eta gizarte ongizatearen arteko oreka ahalbidetzen dugu”

Txosten honek ez du atal bakar batean ere jasotzen Zaragozako MAEL lantegiari buruzko informazioa, enpresa horren erosketa 2022an gauzatu baitzen.

COPRECI TALDEA, MONDRAGON TALDEKO kidea den heinean, erreferentea da ingurunearekin, lehiakortasunaren hobekuntzarekin, berrikuntzarekin eta balio bereizgarri duen konpromisoagatik, betiere gizartean aberastasuna sortzeko helburuarekin, enpresa garapenaren eta enplegu sorkuntzaren bidez. Proiektu globala da hau, sustrai kultural sakonak ditu, eta mundu osoan dago finkatuta.

Iraunkortasuna beti egon da gure antolamendu eredu kooperatiboaren ADNan. Ez gara hutsetik abiatzen, gurea da garapenaren dimentsio ekonomiko eta sozialak modu berritzailean integratu zituen esperientzia bat. Hori da jaso dugun herentzia baliotsua, eta orain herentzia horri jarraipena ematea eta aurrean ditugun erronka berriak txertatuz egokitzea dagokigu, ikuspegi global batetik eta garapen jasangarria sustatuz.

2.2. Enpresa eredu berezia



PERTSONA ERANTZUKIDEAK ETA PROTAGONISTAK GARA

“Giza faktorearen erabateko protagonismoa duen enpresa parte hartzailearen eredu”.

Etorkizun hobea, desberdina, inklusiboa, arduratsua, ekitatiboa eta solidarioa egiteko ahaleginak batzen dituzten pertsonak gara. IRAUNKORRA. Gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspuntutik


COPRECI pertsonen proiektu bat gara, presente gauden lekuan errotuta eta lurralde espazioan identifikazio, ordezkartza eta kide izateko espazio gisa inskribatuta dauden pertsonen proiektu bat. Kooperatibismoak pertsonak erdigunean jartzen ditu, modu justu, demokratiko eta eraginkorrean, egonkortasun ekonomikoa eta ongizate iraunkorra lortzeko.

Eredu kooperatiboak erdigunean jartzen du demokraziaren praktika enpresa esparruan, eta, beraz, bere protagonisten esku uzten du erabakiak hartzea. Gure Printzipio Kooperatiboek hauek bultzatzen dituzte:

Atxikimendu askea, antolaketa demokratikoa, lanaren subiranotasuna, autoexijentzia eta erantzukidetasunaren balioak, kudeaketan parte hartzea, lanaren bidezko ordainsaria, ordainsarien elkartasuna, hezkuntza eta ikaskuntza iraunkorra, aukera berdintasuna, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa, elkarren arteko lankidetzeta, eraldaketa soziala eta izaera unibertsala, besteak beste.

Eta proiektu kooperatiboaren jabe eta protagonista izatearen estatus horrek, aldi berean, eredu zorrotzago bat garatzen laguntzen du, kudeaketa efizientea konpromisoarekin eta erantzukidetasunarekin uztartzen duena.





PLANETAREKIN ARDURATSUAK

“Bidezko sozietatea eta ekitatiboa.

Zaindu beharreko planeta bat”.

Kooperatibak eraldaketa estrukturalerako tresna gisa duen bokazioa da bere ezaugarri bereizgarri eta berezia, eta, beraz, ongizate komunitario bat sortzen eta gauden inguruko ingurumen alderdiak zaintzen laguntzen dugu beste eragile batzuekin batera. Norabide horretan gizarte ekimen gisa erabiltzen diren mekanismoek eta baliabide komunitarioak mobilizatzek, Taldeko kooperatiba guztien inplikazioarekin batera, ekimen berritzaileak bultzatzen dituzte hainbat arlo ekonomiko eta sozialetan, Erkidegoko autogobernuaren eskemen pean.



BALIO DIFERENTZIALA SORTZEN DUGU MODU IRAUNKORREAN

“Aberastasuna sortzea, garapen ekonomikoa eta gizartearen ongizatearen oinarri materialak”.

Gurea, Esperientzia bat da, etorkizuneko belaunaldientzat ingurunea, gizartea eta planeta hobetzen lagunduko duen enpresa proiektu sozial bat utzi nahi duena. Gure kide izatearen, nortasunaren eta errotzearen zentzuaren bidez, balio diferentzial bat sortu genuen gure bezeroekiko, nekez kopia daitekeena. Balio proposamen bat eraikitzen dugu, non lehiakortasuna, berrikuntza, balio diferentzialaren sorkuntza proiektuan presente dauden eta eskaintzen dugun produktu edo sistematik haratago doazen. Gurea bizitza pertsonaleko eta komunitarioko proiektu esperientzia bat da, eta hortik abiatuta pertsonok taldea osatzen dugu eta balio iraunkorra sortzeko proiektua posible egiten dugu, aldagai ekonomikoak izanik pertsonen duintasuna eta bizi hazkundera maila egokian eta ekitatiboan eramateko euskarria. Pertsona bakoitzak bere onena ematea eskatzen duen jomuga bat da hau, eta, horrela, eredu eta emaitza bereizgarri bat ematen du gure bezeroentzat eta iristen garen gizartearentzat.

2.3. Garapen Iraunkorreko Helburuetarako ekarpena

Coprecik, bere jardueraren bidez, zeregin aktiboa du GIHen lorpenean.

Lehentasunezko GIH hauetan eman dezake baliorik handiena eta eduki dezake inpakturik handiena Coprecik:

SOMOS PERSONAS CORRESPONSABLES Y PROTAGONISTAS

RESPONSABLES CON EL PLANETA

CREAMOS VALOR DIFERENCIAL DE MANERA SOSTENIBLE

ODS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17

4 EDUCACION DE CALIDAD

4. GIHa Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES

11. GIHa Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izatea lortzea

6 AGUA LIMPIA Y SANEAMIENTO

6. GIHa Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.

12 PRODUCCIÓN Y CONSUMOS RESPONSABLES

12. GIHa Ekoizpen eta kontsumo arduratsuenak.

7 ENERGIA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE

7. GIHA ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOA BERMATZEA GUZTIONTZAT

13 ACCIÓN POR EL CLIMA

13. GIHa Klimaren aldeko ekintza

8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONOMICO

8. GIHa Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

16 PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS

16. GIHa Bakea, justizia eta instituzio sendoak.

9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA

9. GIHa Industria, berrikuntza eta azpiegitura

17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS

17. GIHa Garapen Iraunkorrerako Aliantzak.



03 Pertsona

Erantzukideak eta protagonistak

gara

4 EDUCACION DE CALIDAD



8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONOMICO



12 PRODUCCIÓN Y CONSUMOS RESPONSABLES



13 ACCIÓN POR EL CLIMA



16 PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS



3. Pertsona erantzukideak eta protagonistak gara



*“Copreci gara,
Proiektu Kooperatibo
bat partekatzen
dugun pertsona
erantzukideak eta
protagonistak”.*



3.1. Proiektu partekatua eta kooperatiboa

COPRECI Taldearen gobernantza sendoa bermatzen dugu, eta jokabide kooperatibo eta lehiakorrek sustatzen ditugu, printzipioen eta balioen bidez eta eredu kooperatibo, parte hartzaile, arduratsu, etiko eta integratu baten bidez”.

“Lankidetzak indartsuago egiten gaitu, eta aukera emango digu etorkizun konplexu eta aldakorrari aurre egiteko, aurrean ditugun erronka zorrotzei erantzuteko behar den jarrerarekin, indarrarekin eta baliabideekin.

3.1.1. Gobernantza Kooperatiboa

Eredu kooperatiboak, gure lan komunitatea gidatzen duten oinarritzko printzipioen definizioan eta adierazpenean oinarrituta, gure kideen giza helburuak eta helburu sozialak bete nahi ditu enpresa egitura errentagarri eta sendo bat lortuz, eta pertsonaren zerbitzura jartzen du lankidetzak, gure munduarekin eta ingurunearekin elkartasunean.

COPRECI Taldeko sozietateak bat datoz COPRECI, S. Coop. matrizearen Gobernu Korporatiboaren jarraibideekin eta, KOOPERATIBA bat denez, oso izaera berezia du. COPRECI, S. Coop.en Gobernu korporatiboa, kudeaketa eta ordezkaritza bere organoetan daude, bai eta organo horietako bakoitzaren antolakuntza egitura propio baten bidez arautzen duten estatutu eta araudietan ere.



La cooperación nos hace más fuertes.

Kooperatibako gobernu organoak eta haien eginkizunak benetan demokratikoak izan daitezzen, bazkideok haien hautaketan eta haietako kide izaten inplikatzeari bultzatzen da, bai eta parte hartzeko eta lan subiranotasuneko sistema baten berezko komunikazio sarean eta erabakiak hartzeko sarean aktiboki parte hartzea ere.



Comité de
vigilancia

Asamblea

Consejo Rector

Consejo Social

Dirección General - Gerencia



DIRECCIONES REGIONALES

- Agentes
- Delegaciones



**DIRECCIONES
DE NEGOCIO**



**DIRECCIONES
DE PLANTA**



**DIRECCIONES
CORPORATIVAS**

Organoa	Eginkizun eta ezaugarri nagusiak
Batzar Nagusia	Batzar Nagusia, bazkide guztiek eraturako organoa, guztien artean zehaztutako proiektua partekatzeko eta onartzeko topagunea da.
Kontseilu Errektorea	Bere eskumeneko gaiei buruz eztabaidatu eta erabakiak hartzeko organoa da, besteak beste, sozietatearen kudeaketa aztertu eta zentsuratzeko, kontuak eta balantzeak onartzeko, soberakinen banaketa erabakitzeke eta heziketa eta sustapen kooperatiborako eta beste helburu interesgarri batzuetarako ekarpena aplikatzeko irizpideak ezartzeko.
Zuzendaritza Kontseilua	Kontseilu Errektorea kide anitzeko organoa da, eta berari dagozkio kooperatiba kudeatzea eta ordezkatzea. Eremu instituzionala eta estrategikoa gobernatzen, onartzen eta gainbegiratzen du. Arlo horietan dituen eskumen guztiak erabiltzen ditu, legeak edo estatutuek beste organo sozial batzuentzako berariaz utzitakoak izan ezik. Eskumenak ditu enpresaren jarduteko jarraibide orokorrak ezartzeko eta indarreko legeriak eta Kooperatibaren Estatutuek esleitzen dizkieten gainerako egintzak egiteko.
Zaintza Batzordea	Gerentziak, Kontseilu Errektoreak izendatuta eta Zuzendaritza Kontseiluak lagunduta eta aholkatuta, esparru estrategikoa eta kudeaketa exekutiboa proposatu eta egikaritzen ditu. Zuzendaritza Kontseilua enpresako organo gorena da enpresa eginkizunekin zerikusia duten arlo guztietan, eta Kontseilu Errektoreak ikuskatuta aritzen da. Kudeaketa sozioenpresarialaren esparru osoan enpresaren enpresa garapena aurreikustea, planifikatzea eta sustatzea da bere eginkizun nagusia.
Kontseilu Soziala	Honako hauek dira bere eginkizun nagusiak: urteko kontuak berrikustea, enpresaren liburuak berrikustea, Batzarrak gainerako organoetarako kideak hautatzeko eta izendatzeko prozesua zaintzea, eta Legeak berariaz agintzen dizkion gainerakoak.

L Kooperatibako organoen (Kontseilu Errektorea, Zuzendaritza Kontseilua eta kontseilu Soziala, batez ere) arteko harremanak Gobernu Kooperatiboa deituriko gobernu organoen egitura eta funtzionamendua arautzen duten arau, printzipio eta prozeduren multzoan ezarrita daude. Organo sozial horiek Batzarrak onartutako proiektu partekatuen erantzukizuna izango dute beti, eta Kooperatibaren interes orokorrari lehentasuna ematea izango dute xede.

Kooperatibaren izaera demokratikoak, bestalde, sozietate alderdiaz gain, autogestioaren eta, ondorioz,

bazkideek enpresa kudeaketaren esparruan duten parte hartzearen garapen progresiboa ere badakar berekin, hain zuzen ere, hileroko partaidetza mekanismo eta bideen bitartez eta kooperatibaren kudeaketako oinarriko aldagaien bilakaerari buruzko informazio gardentasunaren bitartez.

ikas dezaten, organoetan zeharkakotasuna izan dezaten, organoetan emakumeak egon daitezen, organoetara demokratikoki iristeko aukera berdintasuna izan dezaten eta, hori guztia, interesen oreka bermatzen duen kudeaketa autoerregulagarriaren esparruan.

Gaur egun, COPRECI Taldea Arlo Korporatiboek, Arlo Operatiboek eta Negozio batzuek osatzen duten erakundea da, eta horien bidez garatzen dugu Gizarte eta Enpresa Proiektua hainbat eskualdetan, eta jarduera operatibo bat egiten dugu Taldeko ekoizpen planta guztiekin, mundu osoko aliantzekin, agenteekin eta ordezkariarekin.

Taldearen kudeaketa eredua

Dirección General - Gerencia



DIRECCIONES CORPORATIVAS



Planificación y Medios



Productividad y Desarrollo Industrial



Gestión Personas



Innovación y Centro de Competencias



DIRECCIONES REGIONALES

- Agentes
- Delegaciones



DIRECCIONES DE NEGOCIO



EUROPA COCCIÓN GAS



AMERICA COCCIÓN GAS



ASIA COCCIÓN GAS



LAVADO



COCCION ELÉCTRICA



BBQ



APLIC. GAS



DIRECCIONES DE PLANTA

- Alianzas
- Joint venture
- Almacenes



DIRECCIONES CORPORATIVAS



Planta Copreci S. Coop.



Cadena de Valor



Finanzas



Calidad y Sistemas

Gure Gobernantza Kooperatiboaren eredua Kudeaketa Eredu Integratu batekin konbinatzen da (garapen iraunkorren printzipioak betetzen dituzten ISO 9001:2015, ISO 14001:2015, ISO 45001:2018 eta SR-10 Ziurtagiriaren bidez egiaztatua: gizartea, ingurumena eta

ekonomia. Horrek aukera ematen du gure interes taldeen premiak COPRECIren Proiektu Sozioenpresarialaren bidez asetzeko.

Misioa, Bisioa eta Balioak



COPRECIREN XEDEA

“Esperientzia osasungarri, eroso eta seguruak sortzen laguntzea, printzipio kooperatiboak abiapuntu izanik eta gauden tokietan garapen iraunkorra, ekonomikoa eta soziala bultzatuta”.

COPRECIREN MISIO KORPORATIBOA

·Bizi garen ingurunean haztea eta enplegua sortzen eta Garapen Iraunkorarekin konprometitutako proiektu kooperatiboa garatzen jarraitzeko aukera emango diguten onura ekonomiko eta sozialak sortzea.

·Ikuspegi globalarekin, lantegi guztiak integratuta, nazioartean dugun lidergoa bultzatuta.

Gure bezeroentzako balio erantsia handituz, eta berrikuntzaren eta lankidetzaren bidez lehiarako posizioa hobetuz.

·Eraldaketa digitala geure gain hartuz.

·Gure konpromisoak eta protagonismoak, banakakoak zein kolektiboak, COPRECI osatzen dugun pertsonen enplegarritasuna eta kide izatearen harrotasuna areagotuko ditu, eraginkortasunik handiena lortuz.

BALIO KORPORATIBOAK

COPRECIk, MONDRAGON Taldeko kide den aldetik, oinarrizko printzipio kooperatiboetan oinarritzen ditu bere balioak. Printzipio horiek Taldeko kooperatiben sei hamarkada baino gehiagoko ibilbidean landutako ideia multzoa biltzen dute.

COPRECIk esperientzia kooperatiboaren oinarrizko printzipioak aplikatzen ditu bere jardura osoan, eta bere Estatutu Sozialen eta Barne Araudiaren buru den Printzipioen Adierazpenaren bidez integratzen ditu.

Balio horiek COPRECIREn izaera definitzen dute, eta kohesioa bultzatuko duen eta kudeaketaren filosofia berezia garatuko duen identitate zentzua sortzen dute.



Balio korporatiboak

01 Gure bezeroen asebetetzea

Umiltasunez entzuten jakinda, haien proiektu globaletan parte hartuz eta gure lehiakideek nekez kopiatu ditzaketen berezitasunak emanez.

02 Berrikuntza

Gure posizio lehiakorra hobetzeko bide gisa eta merkatuan desberdinak izaten utziko digun balioa emanez, arintasunez eta efizientziaz jardunda.

03 Konfiantza pertsonen- gan

Enpresa anbiziotsua gara, eta pertsonen protagonismoa bultzatzen dugu, helburuak lortzeko. Pertsona konprometituak eta autoexijenteak. Horretarako, ezarritako aldaketa ereduetan oinarritzen gara, eta gure kultur aniztasuna lehiarako abantaila bihurtzen dugu.

04 Interkoope- razioa

Gure ustez, gure lantaldeek beste kooperatiba eta kanpoko partner batzuekin batera egindako elkarlana funtsezkoa da gure arrakasta lortzeko.

Arriskuak, erronkak eta gai materialak



Kudeaketa esparru guztietan arriskuak eta aukerak eta horien inpaktuak identifikatzeko aukera ematen duten ingurunearen azterketa eta barneko azterketa Kudeaketa Sistema Integratuan adierazitakoaren arabera egiten dira.

Arrisku Batzordeko Hiruhileko Zuzendaritza Taldeak bere lan plana gauzatu du 2022an, honako metodologia honetan oinarrituta:

Arriskuen eta haztapenen unibertsoa berrikustea (kategorizazioa). Arrisku berriak identifikatuz. Bat gatoz diagnostikoarekin eta hasitako ekintzen planarekin, 8 edo gehiagoko haztapena duten arriskuak minimizatzeko.

Haztapenak berrebaluatzen ditugu.

Arrisku Taula/Instalazioa "semaforoa" eguneratzen dugu.

Txostena Copreci Taldeko Zuzendaritza

Batzordearen Kudeaketa Kontrolean sartzen dugu. Aldi berean, ezohiko batzorde baterako deialdia egiten da aparteko arrisku egoerak hautematen direnean, eta arrisku hori minimizatzeko ekintzak zabaltzen dira.

2022an 11 arrisku batzorde osatu ziren. Horietatik 4 ohikoak izan ziren, 5 apartekoak, 1 Suteen Ondare Arriskua gehi Taldeko Instalazioetako Zibererasoen autoebaluaziokoa, eta 1 ekitaldia ixtekoa.




Hurrengo taulan COPRECIk GAI MATERIAL GARRANTZITSU bakoitzerako erabiltzen duen kudeaketa ereduak ageri da, bere kudeaketa prozesu estrategikoan garatzen duen arriskuen analisiaren arabera:

EKONOMIA		KUDEAKETA EREDUA
HAZKUNDE EKONOMIKO IRAUNKORRA ETA BALIOA SORTZEA	Gaur eta bihar modu iraunkorren haztea, eskualde guztiak garatuz egungo negozioen eraldaketaren eta negozio eredu berrien garapenaren bitartez, eta ekonomia eta finantza sendotasuna bermatuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa Sistema Integratua (ISO 9001ren arabera Ziurtagiria) • Kudeaketa Sistema Integratua (ISO14001ren arabera Ziurtagiria) • Kudeaketa Sistema Integratua (ISO 45001ren arabera Ziurtagiria).
ALIANZAK ETA EKOSISTEMA IREKIA	Aliantza ekosistema bat sortzea, balio bereizgarri baten ekarpenean gure lehiarako posizioa indartuko duena.	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa Sistema Integratua eta Jokabide Kodea. • Interkooperazio Kooperatiboko Mekanismoa.
HORNIDURA KATEAREN KUDEAKETA ARDURATSUA	Hornitzaileak Taldearen premia eta eskakizunekin bat etortzera bultzatzea (produktuaren ingurumen adierazpena, erosketara iraunkorrak, gizarte erantzukizuna), balio kate iraunkor baten garapena bermatuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren mekanismoak eta interkooperazioko aliantzak (Unibertsitatea, Taldeko Zentro Teknologikoak).

ARRISKUEN KUDEAKETA

- Finantza eta Kreditu Arriskuak
- Bezeroak eta eskaintza
- Hornitzaileak eta hirugarrenak
- Materialen arriskua
- Prozesuen arriskua
- Eragiketa arriskuak
- Sute arriskua



ETIKA ETA GOBERNU ONA		KUDEAKETA EREDUA
GOBERNU KORPORATIBOA	Taldearen gobernantza sendoa printzipio, balio eta jokabide kooperatibo eta lehiakorren bidez bermatzea, arriskuen identifikaziotik eta kudeaketatik ikasiz eta, gardentasunaren eta parte-hartzearen bidez, gobernantza partekatuz, barrutik nahiz kanpotik.	<ul style="list-style-type: none"> • Estatutu Sozialak • Barne Araudi Kooperatiboa • Erakunde kulturaren eredua. Kudeaketa Sistema Integratua (ISO 9001ren arabera Ziurtagiria) <ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa Sistema Integratua (ISO14001ren arabera Ziurtagiria)
ETIKA ETA OSOTASUNA NEGOZIOETAN	Gobernu-organoen eta TALDEKO pertsona guztien jokabide etiko eta arduratsua bermatzea, gure printzipio eta balioen sendotasuna ziurtatuko diguna.	<ul style="list-style-type: none"> • Arriskuen ebaluazioa LSOKSn. • Kudeaketa Sistema Integratua (SR-10en arabera Ziurtagiria) eta Jokabide Kodea.

- Estrategikoa, bereziki iraunkortasuna estrategian integratzea.
- Geopolitiko (Eragiketa egiten dugun Herrialde Arriskua)
- Lege arriskuak
- IT-Informazioa, (Zibersegurtasuna)
- Ospearena eta erantzukizun soziala. Gure Jokabide Kodean identifikatutako egoerak dira.

Alde batetik, ustelkeria eta erosketa arriskuei dagokienez, opariak edo onura pertsonalak eskaintzea, ematea eta onartzea, legez kanpoko jatorriko dirua sartzea, Copreci Taldeko kideren batek legez kontra jardutea eta zuzendaritzako enplegatuek ekintza desegokiak edota legez kanpokoak egiteko arriskua.

Bestalde, Giza Eskubideekin zerikusia duten arriskuei dagokienez, Copreci Taldeak giza eskubideekiko konpromisoa du, pertsona guztien duintasuna eta dagozkien eskubideak errespetatzen direla bermatzeko. Ikuspegi horretatik, Copreci Taldeak bere jardueraren garatzen duen arlo eta herrialde guztietan bere jardueraren ondorioz sortzen diren gizarte eta lan arriskuak identifikatzea erabaki du.



INGURUMENA		KUDEAKETA EREDUA
BALIABIDEEN KUDEAKETA ERAGINKORRA (ENERGIA, URA ETA HONDAKINAK)	Baliabide naturalak (energia, ura eta sortutako hondakin guztiak) modu eraginkorren eta zirkularrean kudeatzea, eta beren bizi ziklo osoan material iraunkorren erabilera sustatzea, araudiak betetzen dituztela eta haietara egokitzen direla ziurtatuz eta gure bezeroek ingurumen gaietan dituzten eskakizunak kontuan hartuz.	* Kudeaketa Sistema Integratua ISO 14001 ziurtagiriarekin * Ekodiseinua aplikatzea gure produktuen energia eraginkortasuna hobetzeko. * Arriskuen ebaluazioa IKSn * Jokabide kodea
KLIMA ALDAKETA / EMISIOAK	Erakunde gisa klimari eragiten diogun inpaktua murriztea, klima arriskua eta bere aukerak proiektu sozioenpresarialaren garapen estrategian integratuz.	

ARRISKUEN KUDEAKETA

· Eragiketa Arriskuak, balio katearen ikuspegi integratzailearekin lotuta, eta iraunkortasun irizpideak hornidura katean nola integratu.

· Ingurumen arriskuak,

o Material arriskutsuen eta/edo ez-baimenduen erabilera ezabatzea bultzatuz.

o Baliabideak alferrik galtzea (ura, energia, materialak...)

o Hondakin arriskutsuak sortzea.

Klima arriskuak, aldizkakoak eta kronikoak. Klima aldaketaren larrialdia aitortzen dugu, bai eta egoera horretatik eratorritako baldintza berriak ere. Erakunde gisa kliman sortzen dugun inpaktua murriztea funtsezkoa da gure proiektu sozioenpresariala garatzeko.



LANEKO PRAKTIKAK		KUDEAKETA EREDUA
ENPLEGUAREN KALITATEA	Enplegua sortzea eta langileen ongizatea sustatuko duten kalitatezko lanpostu egonkorak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Estatutu Sozialak • Kooperatibaren Barne Araudia • Lan denboren, ordainsarien eta enpleguaren kalitatearen erregulazioarekin lotutako araudiak. • Kudeaketa Sistema Integratua. • Jokabide kodea
LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA	Osasunaren, segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak betetzen direla bermatzea, arreta berezia jarritz prebentzio ekintzetan eta langileen prestakuntzan, langileen ezbehar tasa eta absentismoa murriztu ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa Sistema integratua (ziurtagiria ISO 45001ren arabera) • Arriskuen ebaluazioa LSOKSn eta Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeetan (LSO) + Laneko Arriskuen Prebentzioa (LAP) • Jokabide kodea
ANIZTASUNA ETA AUKERA BERDINTASUNA. DISKRIMINAZIOK EZ.	Lan ingurune inklusiboa, diskriminaziorik gabea eta bidezkoa sustatzea, pertsona guztien arteko aniztasunarekiko errespetuan eta aukera berdintasunean oinarritutakoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Estatutu Sozialak • Kooperatibaren Barne Araudia • Kudeaketa Sistema Integratua (SR-10en araberako Ziurtagiria) eta Jokabide Kodea. • Jazarpenen aurkako protokoloa • Berdintasun Plana
TALENTUA ERAKARTZEA ETA ATXIKITZEA ETA ANTOLAKUNTZA IKASKUNTZA	Langileen garapen profesionala erraztuko duten inguruneak sustatzea, erakundearen estrategiarekin bat etorrituz, garapen hori kanporantz ere proiektu dadin, gure enpresa marka indartuz, erantzunkidetasunaren eta protagonismoaren kulturaren errotuta.	<ul style="list-style-type: none"> • Estatutu Sozialak • Kooperatibaren Barne Araudia • Lan denboren, ordainsarien, prestazioen eta abarren erregulazioarekin lotutako araudiak • Kudeaketa Sistema Integratua. • Interkooperazio Kooperatiboko Mekanismoak • Lankidetzaren mekanismoak eta interkooperazioko aliantzak (Unibertsitatea, Taldeko Zentro Teknologikoak). • Lankidetzaren mekanismoak eta interkooperazioko aliantzak (Unibertsitatea, Taldeko Zentro Teknologikoak).

ARRISKUEN KUDEAKETA

- Eragiketa arriskuak, hala nola istripu eta gertakari kopurua murriztea
- Pertsonak eta lan ingurunea: talentua erakartzeko eta atxikitzeko egon litezkeen zailtasunak, gure pertsonen beren profila etorkizunean eskatzen diren profiletara egokitzeko zailtasunak.



KALITATEA ETA BALIO PROPOSAMENA GURE PRODUKTU ETA SISTEMETAN

KUDEAKETA EREDUA

BERRIKUNTZA ETA
EKONOMIA ZIRKULARRA

Bizkortasunez eta eraginkortasunez berritzea, produktuak eta sistemak eskaintzeko, gure bezeroentzako balio erantsi bereizgarria sortuz. Horrela, soluzio iraunkorragoak eskaini ahal izango dizkiogu merkatuari, ekonomia zirkular baten bidez klimaren gaineko eragina minimizatuz.

- Kudeaketa Sistema Integratua (ISO 9001ren arabera Ziurtagiria)
- Kudeaketa Sistema Integratua (ISO14001ren arabera Ziurtagiria)
- Interkooperazio Kooperatiboko Mekanismoa
- Lankidetzaren mekanismoak eta interkooperazioko aliantzak (Unibertsitatea, Taldeko Zentro Teknologikoak).

PRODUKTU, SISTEMA ETA
ZERBITZUEN KALITATEA
ETA FIDAGARRITASUNA

Gure produktu, sistema, soluzio eta zerbitzuen kalitatea eta fidagarritasuna bermatuko duen balioa ematea eta lehiarako eraginkortasuna bermatzea.

ARRISKUEN KUDEAKETA

Arrisku estrategikoak: berrikuntza estrategia da, eta iraunkortasuna integratu ondoren, erronka bihurtzen da produktu, prozesu eta zerbitzu iraunkorretan eta ekonomia zirkularren ikuspegitik berritzea ere, baldin eta lider izaten jarraitu nahi badugu, eta talentua erakarri, ingurune aldakor baterako prestatu eta interes taldeen itxaropenak betetzen jarraitu nahi badugu.

GIZARTEKO GAIAK

KUDEAKETA EREDUA

ERALDAKETA SOZIALA

Tokiko ingurunean eta gizartean aktiboki parte hartzea, gizarte eta ekonomia aurrerapena sustatuko duten ekintza sozial eta solidarioko ekimenetan lagunduz, herritarren ongizatea kontuan hartuta eta ondarea utziz aberastasuna sortzeko helburuarekin.

- Estatutu Sozialak eta Eraitzen Ordainsariaren inguruko Araudiak
- Eraldaketa Sozialerako COPRECIren Sistemaren Eredua eta Araudiak
- Eraldaketa Sozialerako FAGOR Taldearen Sistemaren Eredua eta Araudiak
- Eraldaketa Sozialerako MONDRAGON Taldearen Sistemaren Eredua eta Araudiak

HELBURU ESTRATEGIKOAK GOBERNANTZAN



GOBERNANTZA KOOPERATIBOA, organoen argitasuna, kideen gaitasuna eta konfiantzazko harremanak ahalbidetzen dituzten gobernantza prozesu sendoen bidez.

TALDEAREN KUDEAKETA. Iraunkortasunaren eta kudeaketa sistemaren estrategia holistikoki integratzea TALDE osoan. Iraunkortasuna, COPRECIko pertsona eta negozio guztien lehiakortasunaren eta kulturaren elementu gidari eta bereizgarri gisa, proiektuari, planetari eta legatuari laguntzeko.

ARRISKUEN KUDEAKETA Jarduteko neurriak aurreratu eta ezarriko dituen arriskuak kudeatzeko jarduneko ereduari jarraitzea, Taldea integratuz eta klimarekiko ekintza arriskuaren ereduak, materialtasun bikoitzaren gaiak eta jakinarazpen ereduak integratuz.

- BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOA. Gure ekarpenari, gure balio bereizgarriari eta gure egiten jakiteari balioa ematea.

3.1.2.- Kultura Lehiakorra eta Kooperatiboa.

“Antolakuntza kultura lehiakor eta kooperatiboak, proiektu partekatuarekiko protagonismoaren eta erantzunkidetasunaren bidez, COPRECI proiektua bultzatzen du”

Eredu kooperatiboa pertsonak inplikatzeko, konpromisoak betetzen eta anbizio handiko helburuak ezartzen dituen kulturaren oinarritzen da, langile eta jabe gisako alderdi bikoitzean. Kultura horretan, erantzukizun kooperatiboaren ikuspegitik, norbere buruari asko eskatzen dioten erabakiak hartzen dira hainbat gairi buruz, esaterako, emaitzen banaketari, soldata aurrerakinen maileri, errentagarritasun helburuei, finantza ratio egokiei, anbizio handiko enpresa helburuei eta abarri buruz.

Kultura hori egunero sortzen da lidergo kooperatiboaren estiloarekin, taldean lan egiteko eta guztion ongizatea zaintzeko moduarekin eta goi mailako informazio, ikaskuntza, partaidetza eta autonomia sistemekin.

Zeharkako eskumenak lantzen ditugu eta, horrek, hauek egitea eskatzen du: ikasteko kezka eta interesa eta gaiak erlazionatzeko gaitasuna garatzea, elkarlaneko eta elkarrekiko lankidetzako ekosistema bat eta gizarte trebetasunak kudeatzea, eta oso ingurune aldakorrera egokitzeko gaitasuna malgutasun handiz garatzea, eboluzionatu egiten duen erakunde ireki, interkonektatu eta arin batean.



HELBURU ESTRATEGIKOAK KULTURA LEHIAKOR ETA KOOPERATIBOAN

Kultura kooperatiboan pertsonen konpromisoa sustatzea, etorkizuneko gaitasunen garapenaren bidez eta pertsonen eraldaketan eta erakundearen sistemak testuinguru berrira eraldatzean izango dituen portaeren bidez aurrera eginez.

Talde planak eta plan pertsonalak, proiektuaren erronkak gauzatzeko behar dugun eraldaketaren eta eboluzioaren aldaketa egiten lagunduko digutenak, taldeen kontzientzia eta balio erantsia landuz, erakunderako eta proiekturako.

Gure ereduaren funtsezko elementuen inguruko hausnarketa eta elkarrizketa prozesuak, aldaketa disruptiboak eta negozioen eta gizartearen etorkizuneko bilakaera kontuan hartuta, maila guztietan eguneratzeko eta erabaki koherenteak hartzeko: erantzunkidetasuna, legatua, kolektiboa babestea, elkartasuna, proiektu kooperatiboaren helburua, lidergo kooperatiboa, etab.

3.1.3. Ikaskuntza. Enplegarritasuna

“Pertsonen garapen profesionala erraztuko duten inguruneak sustatzen ditugu, erakundearen estrategiarekin bat etorritik, gure enpresa marka indartuz, erantzunkidetasunaren eta protagonismoaren kulturen errota”

Enpresek inoiz baino gehiago behar dituzte ingurunea (gero eta aldakorragoa) irakurtzeko ezagutzak, trebetasunak eta gaitasuna, eta modu kontzientean eboluzionatu behar dute, pertsonak bere potentziala modu iraunkorrean gara dezan. Argi dago lanaren bilakaera planteatzen duen funtsezko alderdia dela.

Egunerokotasuna modu eraginkorrean kudeatzea eta etorkizunera begira egotea eskatzen du horrek, eta horrek eragin erabakigarria du pertsonengan. Enplegarritasuna aldatu egiten da gaitasun, trebetasun eta ezaugarri pertsonalen bilakaeraren arabera eta, horregatik, pertsona horiez baliatzen da eta bere enplegarritasuna lantzen du, bere lanaren eta gaitasunen bidez kooperatibaren premietan laguntzeko. Beraz, lan egitea eta ikastea elkarrekin doazen alderdi dinamiko batez ari gara.

Kontzeptu hori talentua kudeatzeko prozesuekin osatzen da. Prozesu horietan, talentu interesgarria nola jaso eta nola erakarri eta egungo profilen bilakaera nola kudeatu lantzen da. Horri input batzuk gehitu behar dizkiogu, hala nola piramide demografikoa, iraultza teknologikoa, robotizazioa, digitalizazioa eta balio kate globalean eta, ondorioz, beharrezko lanbideen mapan eragina izango duten beste alderdi batzuk.

Pertsonak gaituak izan daitezen eta eguneratuta egon daitezen, egungo ikaskuntza ereduak doitu behar da. Eredu horrek, osoa izanik eta hainbat aldagairi erreparatuta (lanbide heziketa, sozietate heziketa, lan osasuna, mentoring-a, hizkuntzak, etab.), ikasgaietan eta metodologietan doitzen joan behar du inguruneak eskatzen duen abiaduraren arabera.

“Ikaskuntzan eta gutako bakoitzak proiektuari eta gizarteari modu bereizgarrian ematen diegun balioaren sorkuntzan oinarritutako kultura irekia praktikatzeko dugu”.



Ejercicio 2022

2022. urtean, beste bultzada bat eman zaio ikaskuntza sustatzeari, gure Plan Estrategiko berriak pertsona eta erakunde gisa garatzeko eskatzen dizkigun gaitasun berriei aurre egiteko oinarrizko tresna gisa “eginez ikasi” kontzeptua landuz. Alde horretatik, 2022an, pertsona eta taldeek, 2022an landutako proiektu, helburu eta erronken bidez (elektronifikaziorako proiektuak, konektibitatekoak, balio erantsikoak, digitalizaziokoak, iraunkortasunekoak) Copreciri gaitasun berriak nola ekarri dizkiogun aztertu genuen. Halaber, gure ezagutza ikaskideekin partekatzeko prestakuntzako barneko saioak antolatzen jarraitzen dugu, bai eta gure intranetean ikaskuntzaren kokapena bultzatzen ere, elkarrizketak partekatu, kontsultatu eta sortzeko.





“Talentu berriak erakartzea errazten duten inguruneak sustatzen ditugu, Copreci Proiektuaren estrategiarekin bat etorriz”.

Prestakuntza zentroekin, unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin elkarlanean aritzen gara. Horrela, ikasleei eta talentu berriei sarrera ematen diegu Copreci proiektuan integratzeko. Kudeatzaileak gara, ezagutza sareak garatzen

ditugu eta talentua kudeatzen laguntzen dugu. Pertsonen bizi zikloa eta talentuaren garapena zaintzen ditugu, proiektuaren ikuspegi estrategikoko premien arabera.



Helburu Estrategikoak Antolakuntza Ikaskuntzan

Erakundea enplegarritasun kontziente eta arduratsu baterantz eraldatzea. Ikaskuntzaren KULTURA lantzea

Talde planak eta plan pertsonalak, proiektuaren erronkak gauzatzeko behar dugun eraldaketaren eta eboluzioaren aldaketa egiten lagunduko digutenak, taldeen kontzientzia eta balio erantsia landuz, erakunderako eta proiekturako.

Pertsonen garapen profesionala eta talentu berriak erakartzea erraztuko duten inguruneak sustatzea, proiektuaren estrategiarekin eta premiekin bat etorriz. Aurrera egiten jarraitzea Antolakuntza Ikaskuntzaren Metodo eta Metodologiaren alderdian.

Kultura eta maila guztietako ikaskuntza iraunkorraren eredia. Erakundearen ezagutza kudeatzea, eta adimen kolektiboa ikasi eta indartzen duen erakundea izatea.

Coprecik MUREkin lankidetzan dihardu Erakundeak Nazioartekotzeko Masterraren 8. edizioan




European, Asian, Afrikan eta Amerikan ekoizpen plantak dituzten Copreci bezalako enpresak oso erakargarriak dira Mondragon Unibertsitateko Nazioartekotze Masterreko ikasle gazteentzat.

Coprecik lehen ediziotik laguntzen dio MUri master honetan, parte-hartzaileek enpresen nazioartekotzea eta kultur egokitzapena lehen pertsonan esperimintatu dezaten. Mundu globalizatu batean bizi gara, eta enpresak ez dira eszenatoki horretatik kanpo geratzen. Horretarako, profesional bizkorrek behar dituzte, oso lehiakorrek eta aldakorrek diren ingurune global horietan irizpidez, azkartasunez eta eraginkortasunez moldatzeko.

3.2. Copreci gara. Gure errealitatea sortzen dugu.

“Gobernu organoen eta TALDEKO pertsona guztien jokabide etiko eta arduratsua bermatzea, gure printzipio eta balioen sendotasuna ziurtatuko diguna”.



3.2.1. Etika eta osotasuna negozioetan. Printzipio eta balioen kultura. Jokabide kodea

Gure printzipioak eta balioak gure Estatutu Sozialetako eta gure kooperatibaren barruko harremanak arautzen dituen Kooperatiben Barne Erregelamenduko jarraibideetan jasota daude. Giza eskubideak eta ustelkeriaren aurkako politika Kooperatibaren Barne Araudian eta Estatutu Sozialetan jasotako printzipio etikoen eta portaera eta jokabide arauen funtsezko zatiak dira.

Hala ere, hirugarrenek egiazta ditzaketen ebidentzietan oinarritutako enpresen gizarte erantzukizuneko sistemen orientabideek jarraibide horien osagarri izan behar izan dute, arlo horietan dugun konpromisoa agerian utziko duten kudeaketarako tresna, erantzukizun eta helburu bihurtzeko. Esaera zaharrak dioten bezala: «on izatea ez da aski, on itxura ere izan behar da».

Giza eskubideak

Copreci Taldeak Jokabide Kode bat du, bere jardueran giza eskubideak errespetatzeko eta enpresa jarduera garatzen duen herrialdeetan aplikatu beharreko lege eta arau guztiak betetzeko konpromisoa adierazten duena. Bere Jokabide Kodean ezartzen den bezala, Copreci Taldeak Giza Eskubideen Aldarrikapeneko oinarritzko printzipioak onartzen ditu, NBEK (Nazio Batuak, 1948an) emandako definizioaren arabera. Ikuspegi horretatik, Copreci Taldeak bere jarduera garatzen duen arlo eta herrialde guztietan bere jardueraren ondorioz sortzen diren gizarte eta lan arriskuak identifikatzea erabaki du.

Barne mailan, lana kontratatzeke eta antolatzeke politikak herrialde bakoitzean indarrean dauden araudiak eta legediak errespetatuz ezarri dira, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak sustatuz eta betez (lanerako gutxieneko adina, elkartzeke askatasuna, negozioazio kolektiborako eskubidea, diskriminaziorik eza).

Printzipio orokor gisa, ezarrita dago, lanbide jarduerak garatzean, Copreci Taldeko edo hirugarren alderdiko edozein pertsona garrantzitsuk bizi den eta lan egiten duen herrialdeko indarreko legedia ezagutu eta bete behar duela, eta bere mendeko langileak duintasunez eta errespetuz tratatuko dituela. Copreci Taldeko edo hirugarren alderdiko edozein pertsonak, legea ez betetzera behartu edo bultzatzen badute, berehala jakinarazi beharko dio gaia bere arduradunari edo Taldeko Giza Baliabideen Zuzendaritza Korporatiboari, jokabide kodean ezarrita dagoen bezala.

Nabarmendu behar dugu Taldearen instalazio guztietan daudela salaketak jasotzeko postontziak eta xede horretarako berariazko helbide elektronikoko bat, eta horien bidez Jokabide Kodearen aurkako edozein jardunbide edo jokabide gaizto

salatu daitekeela, hala nola eroskeria, ustelkeria, abusuak, diskriminazioa, etab. Copreci zuzendaritza organoak arduratzen dira Jokabide Kodea betetzen dela zaintzeaz eta horrekin lotutako gorabeheraren bat gertatuz gero neurriak hartzeaz, etorkizunean ez direla berriro gertatuko ziurtatuz.

Ejercicio 2022

2022an, gai etikoekin zerikusia duten eta Kontseilu Errektorean edo gobernu organo baliokide batean aztertu diren gaiak zenbatu ondoren, ez da giza eskubideak ez errespetatzearen esparruan irekitako auzirik kontabilizatu.

Giza eskubideak urratzearen ondoriozko salaketak

2022an, gai etikoekin zerikusia duten eta Kontseilu Errektorean edo gobernu organo baliokide batean aztertu diren gaiak zenbatu ondoren, ez da giza eskubideak ez errespetatzearen esparruan irekitako auzirik kontabilizatu.

Derrigorrezko lana ezabatzea, haurren lana desagerraraztea eta elkartzeke eskubidea

Haurren lanari dagokionez, Jokabide Kodeak dio Copreci Taldeak eta haren hirugarren alderdiek ez dutela haurrik kontratatuko eta langile guztien jaioteguna jasotzen duen erregistro bat izango dutela.

Halaber, Copreci Taldearen Jokabide Kodeak debekatu egiten du bere lantegi guztietan derrigorrezko lanak eta lan neketsuak egitea.

Bestalde, Copreci Taldeak elkartzeke eta negozioazio kolektiborako askatasuna errespetatzeko konpromisoa hartu du, eta diskriminazio eta esplotazio mota oro baztertzeko du. Horrela, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) xedapenak betetzen direla zaintzen du.

#HUMAN
RIGHTS
FOR

Ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapitalak zuritzearen aurkako borroka

Jokabide Kodea funtsezko elementua da ustelkeria, eroskeria eta kapital zuritzeak prebenitzeko. Copreci enpresan lanean hasi diren langile berriei horretarako ezarritako harrera eskuliburuen bidez jakinarazten zaie, eta langile berriek sinatu egin behar dute. Kodea betetzen dela monitorizatzeaz arduratzen den kontrol egitura bat dago.

Eskuliburu horietan, Jokabide Kodea nahitaez irakurri eta bete behar dela adierazten da. Kodearen kopia bat Copreci Taldearen Interneteko eta Intraneteko helbidean aurki daiteke.

Gainera, Kooperatibaren Barne Araudiak Arau hauste oso larritzat jotzen ditu:

- Iruzur egitea, funtsak desbideratzea, bidegabe erabiltzea, bidegabe jabetzea eta antzekoak; iruzurra, desleialtasuna, agindutako kudeaketetan konfiantzaz abusatzea; edo lankideei, Kooperatibari edo beste edozein pertsonari ebastea edo lapurtzea, Kooperatiba barruan edo edozein lekutan egindako zerbitzu ekintzetan.
- Kooperatibaren bezeroei zerbitzuren bat egiteagatik edo egin izanagatik horiengandik edo orokorrean beste pertsonengandik zuzenean edo zeharka ordainsariak, promesak, abantailak edo nolana hiko prerrogatibak kudeatu edo onartzea.

Eta Zaintza Batzordeak (Kooperatibako barne organoa, Kontseilu Errektorearen independentea) barne funtzionamendua eta kontuak ikuskatzeko eskumenak ditu. Eginkizun horretan, identifikatutako anomaliak detektatu eta horien aurka egin dezakete. Bere eginkizunak Estatutu Sozialetan jasota daude.

Ustelkeria, eroskeria eta kapitalak zuritzea prebenitzeko hartutako neurriak

Ustelkeriari eta eroskeriari dagokienez, Jokabide Kodean ezartzen da erabat debekatuta dagoela hirugarrenengandik opariak jasotzea eta/edo hirugarren alderdiari eskaintzea, baldin eta, duten balioagatik, kortesia gainditzen duen oparizat har badaiteke eta tratamendu pertsonal mesedegarria edo Copreci Taldeko edozein enpresarentzako tratamendu mesedegarria lortzeko egiten bada. Halaber, Copreci Taldeko konpainiek hautagaiak eta alderdi politikoak

ezin dituztela finantzatu adierazten du, eta erabat debekatuta dagoela funts eta kreditu publikoak eskuratzea Plangintza eta Baliabide Sailaren alde aurreko baimenik gabe.

Kapital zuritzeari dagokionez, transakzio orok kontabilitate mailan egon behar duela zehazten da. Bestalde, transakzio orok dagokion kopia izan behar du, edozein unetan kontsulta daitekeena eta transakzioaren egileak eta transakzioa egitea baimendu, grabatu eta artxibatu zutenak identifikatzeko aukera ematen duena.

Jokabide desegokiak komunikatzeko bi bide ezarri dira:

- Arduradunari edo Giza Baliabideen Zuzendaritza Korporatiboari jakinaraztea
 - Posta elektronikoko helbide baten bidez jakinaraztea
- Kasu batean zein bestean, jasotako erreklamazioak konfidentzialtasun osoz tratatuko direla bermatzen da.

Ejercicio 2022

2022an ez da ustelkeriarekin edo eroskeriarekin lotutako gairik jorratu. Urtean zehar prebentzio ekintzak gauzatu dira, hala nola gure Jokabide Kodearen arabera oparirik ez emateko politika jakinaraztea.



3.2.2. Ongizatea eta Aberastasuna sortzen dituen Lan eta Gizarte Eredua.

Balioen ereduak garapen ekonomikoa (ingurunea) giza ongizatearen zerbitzura jartzen du (helburua). Kolektibo sozialaren eta, oro har, gizartearen interes orokorrari, gizarte kohesioari eta ongizateari ekarpenak egitea eredu kooperatiboaren funtsezko helburuak dira, eta ongizatearen gizartearen baterako eraikuntzan maila handiak lortzen laguntzen duen eredu da. Ongizatea dimentsio anitzeko kontzeptu gisa hartuta, pertsonak beren bizitzengatik eta laneko eta bizikidetzatza naturaleko inguruneagatik (pertsonak eta ingurunea) egiten dutenarekin eta egin dezaketenarekin lotuta.

Eredua, balioa eta aberastasuna sortzeko gaitasun gisa. Aberastasuna ez da kapital finantzarioaren arabera soilik neurtzen, kapital sozialaren arabera ere neurtzen da. Etengabe bilatzen da aberastasuna sortzeak pertsonen eta gizartearen kohesioa areagotzea. Sortzen duen aberastasuna bidezkoatasunez sortu eta banatzeko gai den eredu.

Pertsonen berezko autonomia lan esparrura eramaten da, eta autokudeaketarako askatasuna eta gaitasuna ematen ditu. Eta aberastasunaren bidezko banaketa sistema bat denez, ereduak honako hauek eskaini eta ematen ditu:

Aniztasuna helburu, berdintasuna ardatz:

Gure Estatutu Sozialek atxikimendu askearen printzipio kooperatiboaren inguruan dugun jarrera islatzen dute, besteak beste, genero baldintzengatiko diskriminaziorik ezaren ikuspegiarekin: «Ez dira onarpena ukatzeko arrazoiak izango ideia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak, ezta eskatzailearen arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila ere, baldin eta helburu sozialarekin bateraezinak ez badira».

Halaber, Antolakuntza Demokratikoaren printzipio kooperatiboak bazkide langileen oinarrizko berdintasuna aldarrikatzen du, izateko, edukitzeko eta ezagutzeko eskubideei dagokienez. Horrek esan nahi du enpresaren antolakuntza demokratikoa onartu behar dela, honako hauetan zehaztuta:

- a) Bazkide guztiek osatutako Batzar Nagusiaren subiranotasuna: "pertsona bat, boto bat".
- b) Gobernu organoak demokratikoki aukeratzea eta, zehazki, Kontseilu Errektorea, Batzar Nagusiaren aurrean organo horiek kudeatzeaz arduratzen dena.
- c) Komunitate osoa eskuordetuz Taldea kudeatzeko izendatutako zuzendaritza organoekin lankidetzan aritzea. Organo horiek behar adina eskumen izango dituzte, beren eginkizuna modu eraginkorrean garatzeko onura ekonomikorako.



*Coprecik
berdintasunean
oinarritutako
oinarrizko
printzipio
kooperatiboak
ditu".*

Enplegu baldintzei dagokienez, lanpostua betetzeko profil indibidualaren arabera izan behar dute, ez ezaugarri edo sinesmen pertsonalen arabera. Beraz, ez du diskriminaziorik egingo kontratazio, ordainsari eta onura prozesuetan eta kontratuaren sustapen, diziplina eta amaieran, arraza, erlijio, sexu, egoera zibil, adin, afiliazio politiko, jaioterri, sexu orientazio edo legeak debekatutako beste edozein arrazoirengatik.

Horregatik, lan bizitzan zehar, aukera berdintasuna bizi egiten da. Pertsona eta etengabeko ikaskuntza oinarritzat hartzen dituen sistema denez, garapen profesionala jardura onaren eta merkatuaren premietara egokitzearen eskutik dator. Giza kualifikazioa eta lanbide kualifikazioa langileen kolektibo osoaren eskura dauden elementu gisa hartuta.

Berdintasun printzipioetako bat, langile guztientzat funtsezkoa, lanaldia kontuan izan gabe, gizarte onura berberak izatea da: bizi aseguruak, osasun laguntza, ezintasunaren eta baliaezintasunaren estaldura, erretirorako hornidura, emaitzetan parte hartzea, etab.

2022an, BERDINTASUN PLANA onartu eta abian jarri da. Planean hiru lan ardatz hauek zehaztu dira: Berdintasuneko kultura sustatzen da, aukera berdintasunean oinarrituta eta arriskurik gabeko eta sexuagatiko jazarpenik gabeko lan ingurunea eskainiz.

Enplegatu kopurua, sexu eta eskualdearen arabera (ekitaldi itxieran - 2022/12/31)	31.12.2022	31.12.2021
Emakumeak	735	1.008
Emakumeen %	52,69%	55,17%
Gizonak	658	819
Gizonen %	47,31%	44,83%
ENPLEGATUAK GUZTIRA	1.393	1.827

Kontratu mugagabeen eta aldi baterakoen urteko batezbestekoa, generoaren arabera	2022	2021
Mugagabeak	1326	1516
Gizonak	589	650
Emakumeak	737	865
Aldi baterakoa	303	532
Gizonak	153	259

Enplegatu kopurua eta ehunekoa kategoría profesionalaren eta sexuaren arabera	31.12.2022		31.12.2021	
	Núm.	%	Núm.	%
Zuzendaritza karguak	19		20	
Emakumeak	4	21,1%	4	20,0%
Gizonak	15	78,9%	16	80,0%
Kualifikatua	599		638	
Emakumeak	181	30,2%	181	28,4%
Gizonak	418	69,8%	457	71,6%
Kualifikaziorik gabea	767		1160	
Emakumeak	545	71,1%	817	70,4%
Gizonak	222	28,9%	343	29,6%
Kontseilu Errektorea	8		9	
Emakumeak	5	62,5%	6	66,7%
Gizonak	3	37,5%	3	33,3%

DNabarmendu egin behar da COPRECik berriazko prozedura bat duela ezarrita jazarpen kasuetarako: "jazarpen moralari edo sexu arrazoiengatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa". Protokolo horretan, jazarpenentzat zer hartzen den, zer prebentzio neurri ezarri diren eta horrelako egoera bat gertatzen denerako jarduketa prozedura zein den deskribatzen dira. Laneko indarkeria eta/edo jazarpen

egoerak aztertze, ebaluatze, arbitratze eta, hala badagokio, konpontze proposamena egiteko ardura duen batzordea Gatazkak ebaluatze eta kudeatze batzordea da. Salaketan kanalak salaketaren eta salatzailearen konfidentzialtasuna bermatzen du.

Batzorde horren ardua da beste gatazka mota batzuk ebaluatzea ere, besteak beste, harreman gatazkak ebaluatzea. 2022an, Gatazkak ebaluatu eta kudeatzeko batzorde honek harremanetakoko barne gatazken egoerak kudeatzeko aukera izan du, eta egoera horiek prebentzio gisa detektatu ditu, larriagotu ez daitezen. Batzorde horrek, gainera, alderdi tekniko, mediko eta psikologikoei buruzko aholkularitza du, ahalik eta ebaluaziorik eta soluziorik onena eskaintzeko.

Aniztasuna eta inklusioa

Atxikimendu askearen printzipio kooperatiboak bazkide berrien sarrera ez mugatzeaz gain, aniztasunarekiko errespetua ere badakar. Bere muga bakarra enplegua sortzeko gaitasuna da. Gaur egun frogatzen ari da aniztasuna eta inklusioa (genero, kultura eta beste hainbat alderditan), gai etikoak izateaz gain, lehiarako abantaila lortzeko elementuak ere badirela eta eragin positiboa dutela talentuaren erakarpenean, bezeroarekiko orientazioan, langileen gogobetetzean edo berrikuntzan eta sormenean.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasunari dagokionez, Copreci Taldeak irisgarritasunari buruzko araudia betetzen du presentzia duen herrialde guztietan. Hala, Copreci Taldearen lantegi propio guztiak erabat egokituta daude gaur egun Coprecin lan egiten duten desgaituentzat.

Copreci Taldeak konpromiso handia erakusten du diskriminaziorik ezarekin, desgaituak gizarteratzearekin eta irisgarritasun unibertsalarekin. Hala, 2022ko ekitaldian Copreci Taldeak 9 desgaitu izan ditu (2021ean, 14). Guztiek dute kalitatezko lanpostua, egonkorra eta baldintza berdinetan. Gainera, nabarmendu egin behar da Taldea gizarteratze fundazio eta enpresekin elkarlanean aritzen dela, 6. Kapituluaren (Aberastasuna Sortzen dugu, Garapen Komunitarioa Bultzatzen dugu) azaldu den bezala.

Soldata arrakala saihesten duten oinarrizko printzipioak

Kooperatiben berezko arauak (bazkide langileei edo kooperatibistei soilik aplikatu dakizkieke), aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboek nahiz enpresa akordioek (bai kooperatiba sozietatearekin, bai Copreci Taldeko beste edozein lantegirekin lan kontratua duten besteren konturako langile guztiei aplikatu dakizkieke) Copreci Talde osoko bazkideen eta besteren konturako langileen gutxieneko ordainsaria arautzen dute, eta antzeko lanpostuen arteko ekitate irizpideak ezartzen dituzte, langile horien generoa

“COPRECI n pertsonen lan egiten dute, haien jatorria eta egoera kontuan izan gabe. Eginkizun berdinekin, ordainsari berdina printzipioa”

edozein dela ere.

Alde horretatik, bai hitzarmenaren mende dauden langileen ordainsariak, bai kooperatibaren barne arauen mende dauden langileenak, lanpostuaren arabera ezarrita daude, eta ez hura betetzen duen pertsonaren arabera; horrela, generoagatiko diskriminazioa saihesten da.

Ordainsaria ezartzeko, urteetan egiaztatutako metodologia bat aplikatzen da, erabateko gardentasuna eta homogeneotasuna bermatzen dituen eta eskualdean gizarte desorekarik txikiena ere bermatzen saiatzen dena. Metodologia hori balorazioan aditua den batzorde batek aplikatzen du. Batzordea Giza Baliabideen arloko profesionalak eta organo sozialetako ordezkariak osatzen dute, prozesuan erabateko gardentasuna bermatuz.

Matrizearen ordainsari sistema erreferentzia metodologikoa da COPRECI Taldeak dituen lantegietarako. Oinarri horiek errespetatuz eta betez, lantoki bakoitza dagokion herrialdearen idiosinkrasiara egokitzen da, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiak eta hitzarmenak errespetatuz.

Erreleboko eta gaueko lanaren plusak, antzinasunagatiko plusak eta abar lotuta daude lantegi-herrialde bakoitzeko erreferentziatzeko araudi eta hitzarmenekin, eta betetzen duen lanpostuarekin koherentzia aplikatu behar zaizkio langileari. Ekitaldi batean egin daitezkeen ordainsarien igoerak lantegiko langile guztiei aplikatu behar zaizkie, ideia politiko, sindikal edo erlijiosoengatik, arrazagatik, hizkuntzagatik, sexuagatik edo egoera zibilagatik inolako diskriminaziorik egin gabe.

Zuzendaritzari ez zaizkio aplikatzen taldeko langileen ordainsari irizpide desberdinak.

Ordainsari finkoaz gain, ordainsari aldakor bat dago. Ordainsari aldakor horretan, hileko kudeaketa operatiboaren eta urteko helburu estrategikoak lortzearen ondoriozko emaitza saritzen da, besteak beste, iraunkortasuna bultzatzen duten helburuak.

Gizonen eta emakumeen arteko batez besteko ordainsariak

Copreci Taldearen 2022ko eta 2021eko ekitaldiko batez besteko ordainsarien banakapena, Kontseilu Errektorea eta goi zuzendaritza kenduta, adinaren, sailkapen profesionalaren eta sexuaren arabera banatuta, hau da, eurotan.

Nabarmentzekoa da batez besteko ordainsariaren kalkulu oinarria Taldeko langileek ekitaldian jasotako ordainsari gordin erreala dela, kontzeptu guztiak barne. Copreciko lantegien artean batez besteko haztatuak erabili dira (langile kopuruaren arabera):

	2022		2021	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Batez besteko ordainsaria, sexuaren arabera	25.414	14.280	23.074	12.509

Kontseilu Errektorearen eta Goi Zuzendaritzaren ordainsariak lanpostu bakoitzak erakundean duen erantzukizunaren arabera finkatzen dira, Pertsonen Zuzendaritza Politikan adierazitako Ordainsari Politikan ezarrita dagoen bezala.

Arrakala hori gizonak eta emakumeak betetzen duten

lanpostuaren ondoriozkoa da, izan ere, lanpostu berdinean ez dago ordainsari desberdinik generoaren arabera.

Ondoren xehatuko da sexuaren arabera berezita (eurotan).

	2022		2021	
	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres
Kontseilu Errektorearen batez besteko ordainsaria (1)	54.245	43.374	51.835	43.273
Goi zuzendaritzaren batez besteko ordainsaria	95.923	71.273	92.639	68.792

(1) Kontseilu Errektorea gure gobernu organo gorena da. Kontseilu Errektorea osatzen duten bazkideek ez dute inolako ordainsari finko edo aldakorrik jasotzen lan horrengatik. Kooperatibaren egunero egiten duten lanari dagokion ordainsaria jasotzen dute, eta ez dute aparteko ordainsaririk jasotzen Kontseilu Errektoreko kide izateagatik. Kontseilu Errektoreko kideak, gainera, partzialki berritzen dira 2 urtean behin.

(2) Kontseilu Errektorearen eta goi zuzendaritzaren batez besteko ordainsaria kalkulatzeko, abenduaren 31n talde horietan zeuden kideak hartu dira kontuan.

Sozietateko lanpostu berdinen edo batezbestekoen ordainsaria

Lan ordainsariak, bestalde, bat datoz dagokion herrialdeko lan merkaturan daudenekin, kasu guztietan hitzarmeneko eta/edo sektoreko erreferentziak errespetatuz. Copreci Taldeko soldatak lan egiten den herrialde bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren gainetik daude eta Taldeko langile guztien ordainsaria dagokion sozietateko lanpostuena edo batez bestekoena baino handiagoa da.

Nabarmendu egin behar da Jokabide Kodean ezarrita dagoela Copreci Taldeak eta haren hirugarren alderdiek, gutxienez, lanbide arteko gutxieneko soldata ordaindu beharko dietela langileei, tokiko legediaren arabera (legeak xedatutakoaren

arabera lan egin behar diren orduetan oinarrituta).

Soldata arrakala

2022ko eta 2021eko ekitaldiko lanbide kategoriaren araberako soldata arrakala jarraian xehatuko da, lantegien arabera. Horretarako, Copreciren lantegi bakoitzean kualifikatutako eta kualifikatu gabeko langileen soldata arrakalak kalkulatu dira gizonen eta emakumeen artean.

Soldata arrakala lantegiko	2022		2021	
	Langile kualifikatuak	Langile ez-kualifikatuak	Langile kualifikatuak	Langile ez-kualifikatuak
Espania	4,98%	-13,88%	5,36%	-10,94%
Mexiko	21,12%	9,92%	-4,98%	4,68%
Turkia	3,70%	-0,23%	-3,40%	-14,43%
Txina	14,98%	7,36%	20,70%	-3,56%
Italia	13,82%	4,77%	1,34%	7,97%

Berdintasun plana diseinatzeko prozesuaren diagnostikoa egiteko garaian, COPRECIk gaur egun profil tekniko-teknologikoko ikasketak dituzten emakumeak kontratatzeke dituen zailtasunak nabarmendu ziren, eta horrek eragina izan dezake langile kualifikatuen kategorietan. Adibidez, gaur egun, Goi Mailako Prestakuntza Ziklo tekniko-enpresariala ikasi duten emakumeen oso eskaintza txikia dago merkatuan, langile kualifikatuen gure kolektiboaren zati bat izango litzatekeena.

Bestalde, ohikoagoa da langile ez-kualifikatuetan soldata arrakala negatiboa izatea, Copreci taldean emakumeen presentzia handia baita horien artean. Langile kualifikatuetan txikiagoa da emakumeen presentzia, nahiz eta, oro har, arrakala maila txikia den. Arrakala handiagoa izatearen arrazoiak historian zehar jardueraren arlo batzuetan (lantaldearen osieran) izan den emakumeen presentzia txikia, lanpostuen espezializazio desberdinak eta antzintasuna dira, batez ere.



“Laneko segurtasun eta osasun estandar gorenak dituzten lantokiak bermatzen ditugu”.

Laneko segurtasuna eta osasuna.

COPRECI bere langileen laneko segurtasunarekin eta osasunarekin konprometitutako taldea da. Esparru estrategikoaren arabera, Taldearen bilakaera jardueraren esparru guztietan izandako etengabeko hobekuntza prozesuan oinarritu da, pertsonen segurtasunari arreta berezia eskainiz. Horregatik, Taldearen helburua, gai honi dagokionez, istripuen eta gorabeheren kopurua murrizten joatea da.

Hori dela eta, COPRECIk lantoki seguru, garbi eta osasungarri bat ematen die langileei, aplikatu beharreko legeria betez eta, honako hauek bermatuz, gutxienez: edateko ura, osasun instalazioak, suteak itzaltzeko ekipamenduak, instalazio medikoak, larrialdietarako irteerak, segurtasun, aireztapen eta argiztapen ekipamendu egokiak. Halaber, bazkideak eta

enplegatuak beren lana modu seguruan egiteko behar bezala prestatuta daudela bermatuko du.

Taldearen Jokabide Kodean Laneko Segurtasunari eta Osasunari lotutako atal espezifiko bat dago. Atal horretan, ezarrita dago Copreci Taldeak eta hirugarren alderdiek laneko segurtasun eta osasunaren arloan legeak xedatzen duena bete beharko dutela. Hain zuzen ere, honako gai hauek jasotzen ditu:

- Suteen prebentzioa
- Istripuen eta gertakarien kudeaketa
- Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko prestakuntza
- Makinen segurtasun elementuak
- Segurtasuneko jarraibideak
- Norbera Babesteko Ekipamenduen (NBE) hautaketa eta erabilera
- Lehen laguntzetarako ekipamendua eta langileen prestakuntza

Horretarako, lanean jarraitzen dugu gure lantegi guztietan kudeaketa sistema bateratu bat ezartzeko eta zero istripu tasa lortzea ahalbidetuko digun prebentzioko eta autoebaluazioko kultura indartzeko”.



COPRECIk eta bere hirugarren alderdiek laneko segurtasun eta osasuneko legezko ikuskapenak betetzen dituzte, gobernuaren eta bezeroen ikuskapenen ondoriozko ekintza zuzentzaileak betetzen direla ziurtatuz eta ekintza horiek epe barruan dokumentatuz.

Nabarmendu egin behar dugu Taldearen lantegi guztietan, Italiako lantegian izan ezik (kasu honetan, lanpostuko arriskuen ebaluazioa berrikusteko urteko bilera bat dago), Laneko Segurtasun eta Osasun Batzorde bat dagoela edo, bestela, urtero bilera bat egiten dela, gutxienez, Taldeak arlo horretan dituen jarraibide guztiak betetzen direla ikuskatzeko

“Segurtasun eta osasun estandar gorenak bermatzen ditugu”

eta segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gai guztiei buruzko informazioa, parte-hartzea eta kontsulta egiten direla.

Copreci Taldearen lantegi guztietan dago laneko segurtasunaz eta osasunaz arduratzen den pertsona bat, gutxienez. Lantegi gehienetan dago zerbitzu medikoa. Hainbat lantegitan, laneko segurtasun eta osasun hornitzaileen kanpoko laguntza dago. Arlo hauetan lan egiten da:

- Arriskuen eta Aukeren Ebaluazioa prebentzioko jardueren plangintzan.
- Segurtasuna. Ebaluazioaren ondoriozko prebentziozko ekintzak eta ekintza zuzentzaileak.
- Istripu tasa
- Higienea
- Ergonomia
- Absentismoa
- Laneko Arriskuen Prebentzioa ekintzetan
- Osasuna. Enpresa osasungarria. Osasunaren zaintza.

Honako hauek dira 2022ko eta 2021eko lan istripuei buruzko indizeak:

	2022		2021	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Maiztasun indizea*	15,11	11,49	12,72	18,08
Larritasun indizea**	0,33	0,29	0,39	0,34

* (Istripu bajadunen kopurua x 1000000) /Lan egindako ordu kopurua

** (Galdutako egun kopurua x 1000) /Lan egindako ordu kopurua

Babes soziala.

Gizarte laguntza eta aurreikuspena emateko sistema bat dugu, hainbat alderdi garrantzitsu biltzen dituena: erretiroa, alarguntasuna eta ezintasun iraunkorra, enplegurako laguntza, aldi baterako ezintasuna, osasun laguntza edo familia prestazioak (amatasuna, aitasuna, haurdunaldiko edo edoskitzaroko arriskua, etab.)

Pertsonaren ingurunea.

Pertsonen bizitzan zuzeneko eta zeharkako ondorioak dituen ingurune egonkor bat sortzen dugu hainbat esparrutan: osasuna, hezkuntza, ingurumena, parte hartzea, kultura, kontsumoa, aurrezkoa edo harreman sozialak. Eta ez dugu paternalismo babeslean oinarrituta egiten, pertsonen protagonismoan baizik, modu ekitatibo eta parte hartzailean.

Lanaren antolaketa eta lanean deskonektatzeko neurriak ezartzea

Copreci Taldeak badaki oso garrantzitsua dela lan ordutegiak arrazionalizatzea bizitza profesionalaren eta pertsonalaren arteko oreka bilatzeko. Lantegietan, Taldeak lan bizitza eta familia bateragarri egiteko neurriak ditu, batez ere lanaldi murrizketei eta lanaldi malguae dagokienez. Bulegoetan, bestalde, sartzeko eta irteteko ordutegi malgua dago, pertsonak laneko erantzukizunak, norberarenak eta familiakoak modu egokian beren gain har ditzaten.

Copreci Taldeak bere bazkide eta enplegatuei lan ingurune osasungarria eskaintzeko eta aisialdiaz gozatzeko aukera bermatzeko lan egiten du.

Copreci Taldeak errespetatu egiten ditu hitzarmenek eta aplikatu beharreko legeriak ezarritako etenaldiak eta atsedenaldiak. Lanaldia, urte osokoa zenbatuta, berdina da bazkide eta enplegatu guztientzat eta, ondorioz, horietako bakoitzak, bere lanpostuaren berezitasunak alde batera utzita, lanaldi bera egiten du urte osokoa zenbatuta.

Copreci Taldeak lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea bultzatzen du eta, horretarako, sarrerako eta irteerako eta bazkaltzeko denbora askatasunez antolatzeko ordutegi malguak ditu ezarrita, txandakako bazkide eta langileentzat izan ezik.

Ejercicio 2022

2022an, Aretxabaletako lantegian 50 pertsonak lanaldi murriztuak eskatu eta baliatu zituzten lan bizitza eta familia bateragarri egiteko neurri gisa. Horietatik 18 gizonak ziren (2021an 52 pertsona izan ziren, horietatik 20 gizonak). Gainerako lantegietan, kasu puntualak ditugu Txekian (emakume 1) eta Italian (2 emakume).

Seme edo alaba baten jaiotzagatiko baimena	2022	2021
Aitatasun/amatasun baimena hartu duten langileak	44	38
Emakumeak	19	21
Gizonak	23	17





04 Planetarekin arduratsuak

4 EDUCACION DE
CALIDAD



9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN
E INFRAESTRUCTURA



6 AGUA LIMPIA
Y SANEAMIENTO



11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



7 ENERGIA ASEQUIBLE Y
NO CONTAMINANTE



12 PRODUCCIÓN Y CONSUMOS
RESPONSABLES



8 TRABAJO DECENTE Y
CRECIMIENTO
ECONOMICO



13 ACCIÓN
POR EL CLIMA



4. Planetarekin arduratsuak



“Lehiakortasuna bermatzen dugu Balio kate Eraginkor, Zirkular eta Iraunkor baten bidez”



4.1. Balio kate eraginkor, zirkular eta iraunkorra

Gure balio kateak linealetatik zirkularretara aldatzeko erronka gauzatzeko ikuspegi integratzaile bat aplikatu behar da, jardueren, produktuen eta zerbitzuen bizitza zikloan inplikaturako balio kate osoa bilduko duena.

4.1.1.- Balio katea eta Hornidura Iraunkorra

Coprecin gure bezeroentzako erreferentziazko hornitzaile izan nahi dugu. Horretarako, gure hornitzaileen hornidura kateak integratzen ari gara, segurtasunaren eta osasunaren, giza eskubideen errespetuaren, ingurumenaren, etikaren eta osotasunaren arloko gure balioekin eta eskakizunekin bat etorritik.

Balio kate iraunkorrak diseinatu nahi izan ditugu produktu familia bakoitzerako, eta abiapuntu bat eta epe labur, ertain eta luzerako helburu bat finkatu ditugu, hornidura kate osoan eraginkortasuna, zirkulartasuna eta erantzukizuna lortzeko. Coprecin Ikuspegi Estrategikoarekin lan egiten dugu eta ikuspegi horrek aukera ematen digu gure estrategiak prestatzeko eta berrikusteko erosketak kategoriatan desberdinetan, hornitzaile estrategikoetan, proiektu berriekin, eta kokatuta gauden eskualdeetan, ikuspegi horren zati bat gure hornitzaileen interes taldearekin partekatuz. Horretarako, hornitzaileekin zuzenean lan egiten duten taldeek osotasunez, zintzotasunez eta gardentasunez joka dezaten zaintzen dugu.



HELBURU ESTRATEGIKOAK – Balio kate eraginkor, zirkular eta iraunkorra

Erosketa prozesuetan iraunkortasun irizpideak integratzen ditugu hornidura katearen homologazio eta ebaluazio prozesuetan, hornitzaileei laguntzeko planekin.

Hornitzaile eta Materialen/Tekniken Arriskuaren Azterketa indartu dugu, Copreci Taldearen Hornitzaile Parke osoaren Ikuspegi Globalarekin, balio katea, negozioak eta erregionalitatea integratuz. Arriskuaren kudeaketa aktiboa, lan egiten dugun merkatu globalean beharrezkoak diren aurrerapenerako, malgutasunerako eta egokitzapenerako balio gisa.

Bezeroarengandik hurbilen dauden balio kateak erregionalizatzen ditugu, ez malgutasun eta hurbiltasun irizpideagatik soilik, baita ingurumenaren gaineko inpaktuak murrizteko eta balio gehiago sortzen lagundu ahal izateko ere. Hurbileko Aliatu Sarea izatea, arriskua egokitzeko eta murrizteko moduan jardutea.

Balio kate desberdinen VSM Iraunkorrak produktu familia desberdinetarako. Kostuen eta joeraren inpaktua integratuz. Arriskuak eta aukerak ASG Gaietan integratuz, hornitu, ekoitzi eta saltzen dugun herrialdearen arabera.

Eraldaketa digitala gure hornitzaileekiko informazio fluxuetan eta hornitzaileen kudeaketan. Hornidura katearen datua, informazioa eta ezagutza digitalizatzea.

- **2022ko jarduera aipagarria, Hornidura Kate Jasangarriaren Kudeaketaren inguruan.**

- Eskualdeko Ikuspegiko Hornitzaileen Ebaluazioa aktibatu dugu. Harreman estrategikoak dituzten hornitzaileak aukeratu dira, hornitutako produktuetan eta zerbitzuetan lankidetzan aritzeko eta hobetzeko aukerak emateko.
- Lantoki desberdinetako hornitzaileen kudeaketa eskualde ikuspegiarekin integratu dugu. Taldeak, urteko plana eta baterako jarraipena integratuz.
- Hornitzaileen eta Materialen/Tekniken Arriskuaren alde aurretiko azterketa eta SQAren eta Erosle Korporatiboen nahiz filialen artean elkarrekin egindako azterketaren ondoren, Hornitzaileen Urteko Plana definitzeko Copreci Taldearen Hornitzaile Parke osoaren Ikuspegi Globalarekin.
- Iraunkortasuna eta hornitzaileei lagun egitea integratzea. Survey bat egin dugu gure A hornitzaileentzat, gure kateak iraunkortasun arloan egindako ahaleginak ezagutzeko. Diagnostikoa egin ondoren, gure hornitzaile sarea zer jarduera esparrutan dagoen jakin ahal izango da eta, horrela, Estrategia garatzeko landu beharreko jarduerak hobeto orientatu ahal izango dira.
- Merkatuaren egoera eta araudiak betetzearen inguruko premia berriak jakinarazteko kanal ofiziala abian jartzea (adibidez: Plastikozko Ontzi Ez Berrerabilgarrien gaineko Zerga Berezia), eta gure Men egiteko Politika Hornitzaile Sarera zabaltzea.
- Azterketa bat egin da Ama Materialen Matrize bat egiteko Erosketa eta Materialen kategoria guztiak bildu ahal izateko eta Material Birziklatuaren azpisailkapenak egin ahal izateko, adibidez, Plastikozko Enbalajeen eta Letoian eta Aluminioan, HCren 3 Irismena egiteko balioko duena.
- Abian jarri da VSM Iraunkorra Aztertze Proiektua
- Gure Hornitzaileekiko informazio fluxuetan Eraldaketa Digitala bizkortzeko lan egin da, bai premiak igortzeari dagokionez eta bai integrazioak sustatzeari dagokionez, hobekuntza operatiboa lortzeko, paper gutxiago sortzeko eta jarraipeneko posta elektronikoak sortzeko.





Hornitzaileen Erregionalitateari buruzko 2022ko Azterketa

Coprecirentzat erregionaltasunak duen garrantzia dela eta, jarraian, gure hornitzaileen kokapenaren banaketa aurkezten da lantegi bakoitzeko.

COPRECI TALDEAREN HORNITZAILEAK	LANTEGIAK	LANTEGIA	LANTEGIA	LANTEGIA
	EU	MX	TK	CN
EU ESKUALDEKO HORNITZAILEEN %	80%	23%	53%	7%
NAR ESKUALDEKO HORNITZAILEEN %	2%	44%	0%	2%
TK ESKUALDEKO HORNITZAILEEN %	2%	5%	33%	0%
ASIA ESKUALDEKO HORNITZAILEEN %	16%	28%	13%	92%
	100%	100%	100%	100%

4.1.2. Balio Kateko Material, Produktu, Sistema eta Zerbitzuen Kalitatea eta Fidagarritasuna

Copreci Taldearen produktuek bermeak dituzte segurtasunaren arloan, eta berme bat dute erabilerarako fidagarritasunaren arloan. Gure produktu eta sistemen ezaugarriak izan dira fidagarritasuna, efizientzia eta iraunkortasuna izan dituzte ezaugarri, gure bezeroek eta merkatuak aitortu dituztenak. Kalitate sendo eta lehiakor baten alde lan egiten dugu, garapenetatik hasita, hornidura katea landuz, eta gure bezeroak hornitu arte.

Coprecik 4.0 industria baten aldeko apustua egin du, interkonektibitatean, ikaskuntza automatizatuan eta produkzio prozesuetako denbora errealeko datuetan

oinarrituta. Datuen erabilera intentsiboaren aldeko apustuak aukera ematen digu digitalizazioari eta automatizazioari baldintza hobetan aurre egiteko, produkzio-prozesuen kostuan, kalitatean eta eraginkortasunean optimizatzeko. Horrek, hondakin gutxiago sortzea eta baliabideak hobeto aprobetxatzea eragingo du.

“Kalitatea eta fidagarritasuna ematen dizkiegu gure produktu eta sistemei, zirkulartasunarekin batera balio katearen iraunkortasuna eta kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna lortzen lagunduz”.



“Ekoizpen azkarrago, sendoago, kalitate handiagoko eta kostu txikiagokoaren aldeko apustua egin dugu. Baliorik eransten ez duen prozesu baten zati oro identifikatuz eta ezabatuz”.

Copreci Taldeak “Bezeroen Kudeaketa Operatiborako” prozesu esparru bat du. Bere helburua bezeroei arreta emateko prozesuan erabili beharreko metodologia bat ezartzea da, bere proiektuetan parte hartuz, bere estrategietan lankidetzua estua bultzatuz eta saldu osteko zerbitzua emanez.

Gure bezeroak eta azken erabiltzaileak gogobetetzea gure

balio korporatiboetako bat da. Copreci Taldeko lantegi guztiek erreklamazioak kudeatzeko eta tratatzeko barne prozesu bat dute. Prozesu horren bidez, etengabeko hobekuntza eta kalitatean, fidagarritasunean, iraunkortasunean, segurtasunean eta, azken batean, erabiltzaileen eta kontsumitzaileen gogobetetasunean eragin handiagoa izatea lantzen dugu.



HELBURU ESTRATEGIKOAK – Lehiarako kalitatea eta kalitate iraunkorra

LEHIARAKO KALITATEA gure produktuen eta soluzioen fidagarritasuna eta iraunkortasuna modurik lehiakorrenean eta balio kate osoan sortutako ahalik eta hondakinik txikienarekin bermatuko dituena.

KALITATEAREN BERMEA Balio Proposamen Berrietara bideratzea (Eginkizuna, Sistemak, Elektronika, balio kate iraunkor berriak integratuz).

EFIZIENTZIAREN DIGITALIZAZIOA eragiketei buruzko informazio zehatzagoa eta egokiagoa ematen duten Tresna Digitalak (4.0 industria eta beste batzuk): Hondakinak, akastunak eta txatarak identifikatzea eta arintzea, joerak eta arriskuak eta aukerak identifikatzea.

4.1.3. Baimendu gabeko Substantziarik ez duen Hornidura Katea.

Gure lehentasuneko interes taldeekin gardentasun harremana izaten laguntzen dugu, eta legediak eta gure bezeroek debekatutako material arriskutsuak eta/edo debekatuak ezabatzea bultzatzen dugu.

Materialak behar bezala kudeatzea eta pertsonen ongizatea eta ingurumena bermatzea eta gure produktuekin eta/edo

jarduerekin haiengan eragin negatiborik ez dugula sortzen ziurtatzea da helburua. Ingurunearekiko, planetarekiko eta pertsonen babesarekiko konpromisoa funtsezko zutabea da Copreci Taldearentzat. Ingurunearekin konpromiso sendoa izatea Copreci Taldeak bere interes taldeei ematen dien balio bereizgarria da. Horretarako, zaintzari, betetzeari eta txostenak egiteari eskainitako prozesu baten pean horrelako materialak edo substantzia kaltegarriak kudeatzeko moduari buruzko jarraibideak aurkezten dituzten hainbat araudi eta/edo legetan oinarritzen gara.



HELBURU ESTRATEGIKOAK – Baimendu gabeko Substantziarik ez duen Hornidura Katea.

KIMIKOEN eta gure hornidura katean eta gure diseinu eta homologazio prozesuetan debekatuta dauden materialen erabileraren gaineko COMPLIANCE Bermatu eta Ziurtatzen duen Prozesua sistematizatzea.

Produktu kimikoen kontrola hobetzea hornidura kate osoan. Betetze horiek zaindu eta bermatuko dituzten mekanismoak ezartzea. TESTA ETA DATA

Baldintza kimikoen maila igotzea hornidura katean.

Produktuaren eta debekatutako beste material batzuen ingurumen adierazpenaren prozesua digitalizatzea

2022an nabarmendutako jarduera

Ingurumen iraunkortasunaren funtsezko alderdi gisa material arriskutsuak behar bezala kudeatzeko premiari buruzko kontzientzia asko handitu da arlo desberdinen artean, eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da gure interes taldeentzat eta, konplexua bada ere, material berriak hautatzeko orduan oso presente dagoen zerbait da.

Ahal den guztietan dagoeneko ezagunak diren materialak estandarizatzen edo erabiltzen saiatzen gara eta, ezinezkoa den kasuetan, aukera berrien dokumentazio teknikoa egiaztatzen da.

RoHS, REACH eta CMRT dira gehien lantzen ari garen arauak edo zuzentarauak. Hori dela eta, diseinu fasetik bertatik hasi gara horiek barnean zorrotz lantzen. Gainera, kontuan hartzen ditugu bezeroen eskaera espezifikoak.

Azken urtean, gure bezeroen eskaera gero eta handiagoa izan da. Batik bat Europako eskaerei erantzuten diegu, Amerika eta Asiakoekin jarraituz.

Material arriskutsuen kudeaketarekin lotutako hainbat helburu eta ekimen ditugu martxan.

Lan asko ari gara egiten gure aitortpenen fidagarritasunean. Lehen aipatutako zuzentarauei buruzko informazioa gure hornitzaileei eskatzeaz gain, kanpoko institutu ziurtatuekin lan egin dugu gure hainbat produkturen analisi kimikoak egiteko. Gure produktuak hobeto ezagutzen lagundu digu horrek, eta gure hornitzaileek jasotako informazioa berresteko ere balio izan du.

2022an, laborategiko 11 analisi egin ditugu, eta analisi guztien emaitza ona izan da.

Material arriskutsuak kudeatzeko prozesua digitalizatzea, informazio guztia zentralizatzeko, gure hornidura katea gehiago inplikatzeko eta dokumentuen kudeaketa arintzeko helburuarekin.

Lan fluxua sistematizatzeak eta ordenatzeak, eta bakoitzaren rola hobeto definitzeak barne kudeaketa hobetzen lagundu du. Zuzentarauak eguneratuta izatea, eta informazio zentralizatua eta ordenatua funtsezkoak izan dira erantzuteko denbora murriztu ahal izateko.

Hornidura kate iraunkorra. Gure bezero batzuk bidaia honetan laguntzen ari zaizkigun bezala, gauza bera egin behar dugu guk gure hornidura katearekin. Badakigu nolako ahalegina eskatzen duen horrek, eta prest gaude gure hornitzaileei gurekin bat egiten laguntzeko.

2022ko aldaketa eta aurrerapena oso esanguratsuak izan dira, eta argi daukagu gure interes taldeei zerbitzu bereizgarria eta balio erantsia eskainiz lan egitea dela bidea.

4.1.4. Balio Kateko baliabideen kudeaketa efiziente eta zirkularra.

“Modu eraginkor eta zirkularrean kudeatzen ditugu baliabideak”

Coprecin gure lantegi guztietan ingurumena kudeatzeko sistema eta plan energetikoa ezartzeko ahaleginean jarraitzen dugu, Talde osoa ingurumenean ahalik eta inpaktu txikiena izango duen ekoizpen eredu eraginkor baterantz doala ziurtatzeko.

Estrategiaren esparruan, lehenetsunezko gisa ezarri ditugu

balio kate osoan hondakinak murrizteko eta balorizatzeko ekintzak, eta arreta berezia jartzen dugu hornitzaileekin ekimenak garatzeko eta hondakin arriskutsuak murrizteko, zero hondakin arriskutsu izateko helburuarekin.



Helburu Estrategikoak – Baliabideen kudeaketa eraginkorra eta zirkularra.

Ingurumena eta energia kudeatzeko sistema ezartzea taldearen lantegietan. Taldearen lantegi guztietan ingurumen arloan bezeroek egindako eskakizunei behar bezala erantzutea

Bizi Zikloaren Azterketen bidez, baliabideak (ura, elektrizitatea, hondakinak,...) alferrik ez galtzeko ahaleginean jarraitzea. Bai eta uraren kontsumoa eta tratamendua (enplegua murriztea, tratamendua, birzirkulazio prozesuak) murrizteko ere, batez ere estres hidrikoko eremuetan dauden lantegietan.

Enbalajeek ingurumenean duten inpaktua aztertzea eta, beste erakunde batzuekiko sinergiaren bidez, enbalajeek ingurumenean duten inpaktua murrizteko planaren barruko ekintzak.

Hondakinen hierarkizazioa eta balorizazioa balio katean. Hondakinak tipologiaren arabera eta kudeaketa hobetzeko tresna digitalak erabiliz lortutako minimizazio tasen arabera zenbatzea eta kuantifikatzea. Hondakin Arriskutsuak Zerora hurbiltzea.

Hondakinen kudeaketa

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, hondakinak eta, zehazkiago, hondakin arriskutsuak murrizten jarraitzen du Taldeak, ia % 25 hondakin gutxiagorekin.

	2022	2021	Aldakuntza 2021 - 2022 (%)
HONDAKINAK, guztira (t)	4.810,94	6.628,77	-38%
Hondakin motaren araberako banaketa			
HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK, guztira (t)	3.899,79	5.501,97	-41%
HONDAKIN ARRISKUTSUAK, guztira (t)	911,15	1.126,80	-24%
Azken tratamenduaren araberako banaketa			
LEHENGORATUTAKOA, guztira (t)	3.985,64	5.587,82	-40%
EZABATUTAKOA, guztira (t)	825,30	1.040,96	-26%



Lehengaiak eta enbalajea

	2022	2021	Aldakuntza 2021 - 2022 (%)
Letoia; aluminioa; altzairua (t)	7.803,82	8.820,20	-13%
% Birziklatua	62%	Ez dago daturik	Ez dago daturik
Paperezko eta kartoizko enbalajea; Zura; Plastikoa (t)	1729,07	Ez dago daturik	Ez dago daturik
% Birziklatua	44%	Ez dago daturik	Ez dago daturik

Energia

	2022	2021	Aldakuntza 2021 - 2022 (%)
Energia EZ berriztagarriaren kontsumoa (kwh)	27.174.632,00	34.414.917,12	-27%
Energia berriztagarriaren kontsumoa (kwh)	5.146.862,28	6.349.125,04	-23%
% energia berriztagarria	19%	18%	5%

Gasa

	2022	2021	Aldakuntza 2021 - 2022 (%)
Gasa (kwh)	8.450.359,49	10.769.347,06	-27%

Ura

	2022	2021	Aldakuntza 2021 - 2022 (%)
Ura (m3)	28.191,00	35.185,00	-25%

“1 eta 2 irismeneko karbono neutraltasuna ezarri dugu helburu gisa 2030erako, bai eta energiaren %80 elektrizitate iturri berriztagarrietatik etortzea bermatzea ere, kontsumoaren %30 autokudeaketako proiektuetatik etorritakoa izanik”.

4.2. Klimarekiko konpromisoa

Klima aldaketaren urgentzia onartzen dugu. Hobeto ulertzen ari gara gure jarduerak gure balio kateetan egiten duten BEGen zeharkako emisioak (1, 2 eta 3 irismeneko emisioak ere deitzen zaie). Kalkuluak adierazten duenez, gure 3 irismeneko emisio gehienak eskuratzen ditugun lehengaien isurketekin lotuta daude, bai eta gure produktuen erabileraren ondorioz eta haien bizitza baliagarriaren bukaeran ematen zaien tratamenduaren ondorioz gertatzen diren isurketekin ere.

Carbon Disclosure Project (CDP) proiektuan parte hartzen dugu. Industria eta gure bezeroak baloratzen dituen ekimena da. Gure ustez, klima estrategia osatuago bat garatuta gure enpresa ikuspegi orokorra ere babesten dela, klimaren bide orria gure bezeroekin partekatuz. Funtsezkoa da erakunde gisa klimari eragiten diogun inpaktua murriztea, proiektu sozioenpresarialaren garapenean klima arriskua eta

haren aukerak txertatuz, lider izaten jarraitzeko, talentua erakartzeko, ingurune aldakor baterako prestatzeko eta interes taldeen itxaropenak betetzen jarraitzeko, klimarekin dugun konpromisoa sustatuta.

COPRECIren anbizioa ez da soilik ekonomikoki haztea, baizik eta estandar sozial, ekologiko, kultura, demokratiko eta solidarioei jarraituz haztea. Etorkizuneko erronkari erantzuteko, ezinbestekoa da gero eta lehiakorragoa den merkatu batean arrakasta sozioenpresariala izatea, baina, ezinbestekoa da, halaber, neurri handi batean eta horrekin oso lotura handia izanda, honako gaitasun hauek edukitzea: Negozio garapena eta ingurumen inpaktua banatzea, estrategia korporatiboan iraunkortasuna modu horizontalean txertatuko duen enpresa eredua sustatuz, helburu eta adierazle iraunkorrak negozioaren garapenarekin eta kudeaketarekin lotuz.



Helburu estrategikoak – Klimarekiko konpromisoa

Aldez aurretik egindako auditorietan identifikatutako instalazioen efizientzia energetikoa.

2030erako berriztagarri erosten den energia elektrikoaren %80 berriztagarria izatea, eta kontsumitzen den energiaren %30, autokudeaketa proiektu berriztagarrien bidez lortutakoa izatea

Emisioak murrizteko bide orri bat izatea Klima Politika korporatibo baten barruan (SBTi-rako prestatzea)

Hornitzaile estrategiko guztien ingurumen jarduna bultzatzea, 2030erako klimaren aldetik neutralak izaten laguntzeko, 2050erako karbonoan neutrala den hornidura kate bat lortzeko.

Produktuen Bizi Zikloaren analisia produktu familia guztietan, eta NETzerorantz egiteko murrizketa ekintzen plan bat izatea.

Gida (TCFD) erabiltzea klima aldaketaren gure ikuspegia bultzatzeko eta klima aldaketaren arriskuaren ebaluazioa hobetzeko enpresa arriskuaren kudeaketaz dugun ikuspegian.

Ejercicio 2022

Horretarako, produktuaren bizi zikloaren lehen analisia egin dugu jada, eta, horren bidez, kliman duen inpaktua murrizteko ekintzetan aurrera egiteko aukerak irekitzen dira, ekonomia zirkular bat aplikatuz eta ekodiseinuen bidez. Lehen analisi horrek aukera ematen digu klima aldaketa eta deskarbonizazioa gure enpresa prozesuetan eta estrategian txertatzen jarraitzeko.



Ejercicio 2022

COPRECIk, Osagaien Dibisio gisa, Euskadiko eguzki energiaren parke handiena babesten du, EKIAN. Biodibertsitatearen babesa. Euskadiko eguzki energiaren parke handiena da EKIAN. Proiektu hori Energiaren Euskal Erakundeak -Eusko Jaurlaritzaren energia agentziak- eta KREANek (MONDRAGON Korporazioa) sustatu dute, eta orain arte Euskadin garatu den eguzki energia fotovoltaikoaren proiekturik handiena jarri zuen abian. EKIAN parkeak 355na wateko 67.000 panel ditu. Instalaturako potentzia 24 milioi watekoa da, eta, horrekin, parkea eraiki arte Euskadin instalatuta zegoen potentzia fotovoltaikoa bikoiztu da, 2030erako ekoizpen elektriko berriztagarriaren arloan Eusko Jaurlaritzak duen energia estratejiaren helburuak lortzeko pauso handia emanda. Plantak 40.000 milioi watt sortzen ditu urtean, 15.000 familiak urte batean kontsumitzen duten elektrizitatearen baliokidea



Copreci Taldeko 1 eta 2 irismeneko karbono aztarnaren emaitzak.

BEG emisioak (t CO2 eq)	2021	2020
1. irismena	2.324,25	1968,58
2. irismena	10.477,86	8.278,89
1+2 irismenak, guztira	12.802,11	10.247,48
BEG emisioak (t CO2 eq) 1. eta 2. irismenak / Fakturazioa (milioika eurotan)	44,9	51,98

2020ko 2 irismenaren datua zuzendu da. Lehen 8.643,74.

Copreci Taldeko 1 eta 2 irismeneko karbono aztarnaren balioa 12.802,11 t CO2 baliokidekoa izan da 2021eko ekitaldian. Adierazleari erreparaturaz, ikus daiteke, Taldearen fakturazio osoa erreferentziatzat hartuta, inpaktuak 7 puntu behera egin duela. Kalkulu horiek ISO 14064-1 arauan oinarritzen dira: 2018. Inpaktu esanguratsuenak 2. irismenetik datoz, hau da, elektrizitate kontsumotik.



05 Balio diferentziala

sortzen dugu modu iraunkorren

8 TRABAJO DECENTE Y
CRECIMIENTO
ECONOMICO



9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN
E INFRAESTRUCTURA



12 PRODUCCIÓN Y CONSUMOS
RESPONSABLES



17 ALIANZAS PARA
LOGRAR LOS
OBJETIVOS



5. Balio diferentziala sortzen dugu modu iraunkorrean



“Iraunkortasunaren alde egiten dugu, balio diferentziala sortzeko eta gure ondare kooperatiboa ziurtatzeko”



5.1. Balio proposamen diferentziala

Copreciren balio proposamena, funtsean, hauek garatzen da: osagaiak eta beraien funtzio eta prestazioak, erabiltzaileari esperientzia osasungarriak eskaintzen dizkioten sistemak eta soluzioak, kontsumo etikoa errazten dutenak eta ingurumena errespetatzen dutenak.

BALIO PROPOSAMEN DIFERENTZIAL bat sortu dugu, produktu, funtzio eta sistema jasagarrietan berrikuntza arinak eginez eta lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko eko-sistema irekien bidez”.

Gure negozioak



Gas egoketa EMEAn: Txorrotak, balbulak, termostatoak, arrapalak eta tubingak, elektronika eta sistemak diseinatzea, garatzea eta ekoiztea sukalde, gaineko sukalde eta gas labeetarako, eta horiek guztien saldu osteko zerbitzua ematea. Europan, Middle East-en eta Afrikan saltzera bideratuta nagusiki.



Gas Egoketa Amerikan: Txorrotak, balbulak, termostatoak, arrapalak eta tubingak, elektronika eta sistemak diseinatzea, garatzea eta ekoiztea sukalde, gaineko sukalde eta gas labeetarako, eta horiek guztien saldu osteko zerbitzua ematea. Amerika aldean saltzera bideratuta nagusiki.



Gas Egoketa Txinan: Txorrotak, balbulak, termostatoak, arrapalak eta tubingak, elektronika eta sistemak diseinatzea, garatzea eta ekoiztea sukalde, gaineko sukalde eta gas labeetarako, eta horiek guztien saldu osteko zerbitzua ematea. Asia aldean saltzera bideratuta nagusiki.



Egoketa Elektronikoa: Potentzia sorgailuak, fokuak, elektronika eta sistemak diseinatzea, garatzea eta ekoiztea indukzioko gaineko sukaldeetarako, eta horien saldu osteko zerbitzua ematea.



Garbiketa: Motorrak, elektronika eta sistemak diseinatzea, garatzea eta ekoiztea garbigailuetarako, ontzi garbigailuetarako eta lehorgailuetarako, eta horien saldu osteko zerbitzua ematea.



Barbakoak: Gas balbulak, arrapalak eta tubingak, elektronika eta sistemak diseinatzea Barbakoetarako, eta horien saldu osteko zerbitzua ematea.



Gas Aplikazioak: Gas osagaiak, elektronika eta sistemak diseinatzea, garatzea eta ekoiztea Outdoorerako, Home Conforterako eta Profesionalerako, eta horien saldu osteko zerbitzua ematea.

Garbiketa

Garbiketa prozesua sakon ezagutzen dugunez, erregulazio eta kontrol sistemen aukera zabala eskain dezakegu, horien artean garbigailuetarako eta ontzi garbigailuetarako drainatze ponpak eta birzirkulazio ponpak.

Etxetresna elektrikoaren bihotzean dauden osagaiak, garbiketa isila egitea ahalbidetzen dutenak, eta garbiketa bakoitzean kontsumitzen den ur eta energia zaintzen dutenak. Teknologiko eta ekoizpeneko goi mailako estandarrekin fabrikatutako osagaiak, etxetresna elektrikoari balio diferentziala ematen diotenak, haren bizitza luzatuta eta etxetresna elektrikoaren fabrikazio prozesu osoan hondakinen kudeaketa ahalik eta txikiena izanda.

Egosketa elektronikoa

30 urte baino gehiagoko esperientzia dugu, eta esperientzia horrek Europako Indukzioen garapenean eta fabrikazioan liderretako bat izatera eraman gaitu.


Gure katalogoan diseinu modularrak eta malguak ditugu, kozinatzearen inguruan elementu eta funtzio berriak dituztenak, hala nola FlowIn sistema, baita prestazio berriak ere, indukzio plaka beste gailu batzuekin konektatuz.

Erabiltzailearentzako prestazioak eskaintzen ditugu, hainbat interface moduren bidez, baita segurtasun prestazioak eta esperientziako prestazioak ere, kozinatze eta maneiu erraza, praktikoa, segurua, efizientea eta osasungarria eskainita.

Osagaien sektoreko esperientziak, indukzio sukaldeetako osagaien balio kateak ezagutzeak eta gure gaitasun industrialak, gainera, aukera ematen digute indukzio sukaldeetarako bobinak_fokuak fabrikatzeko, European lidergo posizioa izanda.

Urteak daramatzagu aplikazioetan kontrol eta zirkuitu

“Coprecin zaratarik ez duen etxe bat bilatzen dugu. Uraren kudeaketa efizientean lagunduko duten eta energia kontsumo txikia duten osagai teknologikoak garatzen ditugu, helburu horretan laguntzeko”.



elektronikoak diseinatzen. Gure erosketa ahalmenaren bidez, eta fabrikazioaren bidez, Fagor Electronicarekin (EMS) dugun aliantza estrategikoko harremanean oinarrituta, aukera bat gara, aplikazio desberdinetarako elektronikaren hornitzaile global gisa aitortua.

“Ahotsa, keinuak eta entzumena dira ikusmen urritasuna duten pertsonen Copreciko indukzioko gaineko sukaldeetan erabil ditzaketen komunikazio kanalak”



Gas egosketa

50 urte baino gehiagoko esperientzia dugu, eta esperientzia horrek munduko hiru eskualdeetan -Amerika, Asia eta Europa- sukalde eta gainerako sukaldeetarako eta fabrikazioan liderretako bat izatera eraman gaitu.

Geure prozesuak garatzen ditugu, "lean manufacturing"-a aplikatuz eta beharrezkoak ez diren prozesuak, itxaron denborak, gainerakoizpenak, inbentarioak, alferrikako garraioak kenduta, balio erantsirik ematen ez baitute.

Segurtasun maila handia eskaintzen duten produktu eta sistemen gama zabala dugu, gainerako sukaldeetan, free-standing sukaldeetan eta labeetan gasa erregulatzeko.

Segurtasun sistema adimendunak, programatu daitezkeen berpizte gailuak dituztenak eta sukaldeko gainerako elementuekin elkarreragiten dutenak. Gas emariaren doikuntzarekin, argiztapen sistemekin eta Simmeringa bezalako prestazioekin, erabiltzaileak efizientzia eskuratzen du, eta erabiltzeko erraztasuna eta beste esperientzia bat dauka.



BBQ y OUTDOOR

Gas balbulen betiko soluzioak eta kontrol elektronikoak elkartzen dituen outdoor sektoreko fabrikatzaile bakarra gara munduan.

Barbakoetarako sistemak eta aplikazioak eskaintzen ditugu, segurtasun sistemekin, komunikazio sistemekin eta gure bezeroei aukeren mundu oso bat irekitzen dizkieten funtzionaltasunekin.

Gure produktu gama etengabe berritzen ari da. Horregatik, kalitatea gure zigilua da, eta berrikuntza gure etengabeko erronka. Konfiantza da eraiki dugun eta denboran zehar mantendu dugun balioa.



Egosketa profesionala

Coprecik hainbat produktu gama dituegosketa profesionalaren sektorerako. Balbulak, motorrak eta kontrol elektronikoa duten sistemak era guztietako gailu profesioletarako, hala nola gas sukaldeak, plantxak, hozkailuak, labeak, kebabak..., sukaldaritzaren, jatetxeen eta gastronomia profesionalaren eremu bateko ekipotan funtzio eta prestazioen sorta bat betetzeko.

Horietako bakoitza bezero bakoitzaren neurria garatua. Sektore profesional eta industrialerako funtzioak eta prestazioak.

“Ostalaritzako ekipamenduetarako osagaietan adituak gara”



Confort Hogar

Etxeko Konfortaren arloan ditugun soluzioak teknologikoki aurreratuak dira, kalitate estandar zorrotzekin garatuta daude, eta lasaitasuna, segurtasuna eta erosotasuna eta ingurune osasungarria bermatzen duten prestazioak eskaintzen dituzte.

“Etxeko Konfortaren arloan ditugun Soluzioek erosotasuna eskaintzen dute eta ingurune seguru eta osasungarria sortzen dute”



Helburu Estrategikoak – Balio Diferentziala sortzen dugu

Berrikuntza hainbat funtzioetan, hala nola gasa kontrolatzeko, erregulatzeko eta eramateko funtzioetan, garbitzean, kozinatzean, eta beste zeregin batzuetan balio erantsi diferentziala sortzeko, fokua funtzioetan, prestazioetan eta sistemetan jarrita.

Konektibitate, elektronikazio eta adimen artifizialeko soluzioak garatzea, kozinatze, garbitze eta lehortze lanetan esperientzia hobetzeko, hori guztia modu iraunkorren.

Garapen berri guztiek zehaztutako iraunkortasun irizpideak txertatuta dituztela bermatzea, bai diseinuan, bai fabrikazioan, balio katean, logistikan, etab.

5.1.2. Berrikuntza eta Ekonomia Zirkularra

Berrikuntza estrategikoa da. Posizio lehiakorretik berritzen dugu, balio proposamen diferentzial bat eskaintzeko, gure produktuen eta sistemen erabilera iraunkorra ahalbidetzeko, kliman ahalik eta inpaktu txikiena izateko. Gure produktu eta soluzioek joera, teknika eta teknologia berriak dituzte: konektibitatea, elektronifikazioa eta adimen artifiziala, koinatzean, garbitzean eta lehortzean esperientzia hobea izateko, hori guztia modu iraunkorren.

“Arintasunez eta eraginkortasunez berritzen dugu, elkarren arteko lankidetzen eta aliantzen ekosistema ireki baten bidez”.

Sarean lan egiten dugu, metodo arinen bidez, eta, beraz, gure bezeroei irtenbide lehiakorragoak, iraunkoragoak eta diferentzialagoak eskaintzen dizkiegu.



Helburu Estrategikoak – Berrikuntza eta Ekonomia Zirkularra

Gaitasun berrietan oinarrituta berritzen dugu, balio proposamen diferentzial bat eskaintzeko, kliman ahalik eta inpaktu txikiena izateko, ekonomia zirkular baten bidez.

Arintasunez eta efizientziarekin berritzen dugu, ekosistema ireki baten bidez, balio erantsi diferentziala sortuz, gure bezeroekin batera irtenbide iraunkoragoak eskaini ahal izateko.

Produktu familia guztien bizi zikloaren analisia. Dimentsio zirkularra barne hartzen duen ingurumen informazio garrantzitsua jasotzea. Informazioa eta arkitektura digitala prestatzea pasaporte digitaletarako.

Ekimen eta prozesu zirkular eta digitalak abian jartzea. Balio Proposamenean gure produktuen eta sistemen Zirkulartasuna txertatzea

Ejercicio 2022

COPRECIk lankidetzat teknologikoa sinatu dute lehen mailako zentro teknologiko batekin: IKERLAN.

Aliantza horrek berrikuntza disruptiboen garapena bultzatuko duetxetresna elektrikoaren sektorerako arlo elektronikoan. Lankidetzat horrek gure plan estrategikoan ezarri dugun aliantzen estrategia berresten du; izan ere, estrategia horren arabera, hoberekin eduki behar ditugu inguruan merkatura garaiz iristeko, soluzio iraunkorak eta balio erantsia dutenak eskaintzeko. Sare lokal bat, konfiantzazkoa, talentua trukatzeko utziko duten diziplina anitzeko lantaldeekin, teknologikoki gidatu ahal izateko eta nazioartean lehiatu ahal izateko.

Ingurumena errespetatzen duten eta kontsumo etikoa eta arduratsua egiten laguntzen duten soluzioak garatzeko hartua dugun konpromisoa indartzen du.



Coprecin iraunkoragoak eta zirkularragoak diren produktu, prozesu eta negozioetarantz aurrera egitea ahalbidetzen diguten berrikuntza proiektuak lantzen ditugu. Mundu iraunkorago baterako berritzen dugu, eta produktuak garatzen ditugu planetaren erronka berrietan pentsatuta.

Material birziklatua eta bigarren mailako materialak sartzen ditugu produktuetan, zirkulartasuna sustatzeko. Kontsumitzen ditugun baliabideen zirkulartasuna eta sortzen ditugun hondakinak berrerabiltzea lortzeko berritzen dugu.

Ejercicio 2022

Coprecik eta PlanetCarek aliantza estrategiko bat sinatu dute itsasoak mikroplastikoetatik babesteko

Coprecik berrikuntzarekin eta hobekuntza teknologikoarekin duen konpromiso etengabeak aukera emango die erabiltzaileei etxetresna seguruagoak, erabiltzen errazagoak eta ingurumena errespetatzen dutenak edukitzeko. PlanetCarerekin lankidetzan arituta, Coprecik edozein garbigailu motaren fabrikatzaileen eskura jartzen ditu itsasoak eta ozeanoak mikroplastikoekin kutsatzea saihesteko behar diren soluzioak.



5.2 Hazkunde ekonomiko iraunkorra

5.2.1. Hazkunde ekonomiko iraunkorra eta aliantzak.

Pertsonez eta baliabideez hornitzen gara, aliantzak garatzen ditugu, posizionamendua lantzen dugu eta aukera berriak diseinatzeko eta garatzeko balio proposamenak diseinatzeko ditugu.

Sendotasun ekonomiko eta finantzarioa mantentzen dugu, jarduera berriak sortuz eta egungoak eraldatuz, arrisku hauek kudeatzeko eta minimizatzeko politika aktiboa aplikatuz: merkatu arriskua (truke tasaren arriskua, interes arriskua arrazoizko balioan eta prezioen arriskua barne), kreditu arriskua, likidezia arriskua eta interes tasaren arriskua eskudiru fluxuetan. Likidezia arriskuaren kudeaketa zuhurra egiten dugu, behar besteko efektiboa eta balio negoziagarriak mantentzea eta eskuragarri dauden kreditu lerroen zenbateko nahikoaren bidez finantzaketa eskuragarri izatea oinarri hartuta.

Produktuen salmentak kreditu historia egokia duten bezeroei egiten zaizkiela ziurtatzeko politikak ditugu.

Etorkizuneko transakzio komertzialetatik, aktibo eta pasibo aitortuetatik, sortzen den truke tasaren arriskua kontrolatzeko, eperako dibisa kontratuak edo eragiketak dibisan neteatzeak erabiltzen ditugu.

Gainera, emaitzak banatzeko kongresu araudiak aplikatzen ditugu. Funts propioak indartzera eta finantza ratioak hobetzera bideratutako arauak dira. Araudi horrek independentzia, finantza zor garbia, ebitda eta enpresaren errentagarritasun tasa kontuan hartzen ditu interesak sortzeko eta kapitalizatzeko muga gisa. Ratioak betetzeak, gainera, zorpetzea mugatzera behartzen du, ingurune gero eta hegazkorragoan baikaude eta interes tasen igoerak baitaude.

Horrek guztiak ahalbidetzen digu enpresa bermatzaile eta iraunkor gisa posizionatzen jarraitzea, hazkunde eta eraldaketa erronkei aurre egiteko gaitasunarekin.

Gainera, interkooperazioak lehiakorrgo egiten gaitu. Urtero, eta oro har, MONDRAGONeko kooperatiba guztiek beren emaitza positiboan %5 ematen dizkiote MONDRAGON Fundazioari, Kohesio eta Garapen Funtsa eratzeko,

“Hazkunde ekonomiko eta jasangarria nahi dugu, denboran irauten duena eta belaunaldi berriei COPRECIren legatua bermatuko diena.”

MONDRAGONen esperientzia kooperatiboaren kohesioa eta garapena ahalbidetuko duten proiektuak garatzeko. Funts horren helburua da bideragarritasun analisiak egitea edo I+G+B proiektuak finantzatzea, besteak beste. Era berean, eta oro har ere, emaitza positiboan %5en pareko ekarpenak egiten dira urtero, inbertsio gisa, MONDRAGON Inversiones, S. Coop.ek kudeatutako nazioarteko hedapen funts bat eratzeko. Baliabide horiek kooperatibei nazioarteko hedapen eta hazkunde prozesuetan laguntzeko erabiliko dira, bai eta enpresa proiektuak bultzatzeko edo kooperatiben ondare egiturak indartzeko ere, besteak beste.

Datozen urteetan, hazten eta posizionatzen jarraituko dugu, menderatzen ditugun merkatu guztietan balio proposamen diferentzial batekin, garapenaren alde eginda, interkooperazioan oinarrituta eta aliantzen sarea garatuta.

“Aliantzen eko-sistema bat dugu, lehiarako dugun posizioa indartzen duena, balio diferentzial bat ematekorakoan”.



OBJETIVOS ESTRATEGICOS – Crecimiento económico Sostenible y Alianzas

Crece con una propuesta de valor diferenciada en los mercados que dominamos.

Somos referentes como proveedor global de electrónica, apoyados por la relación de alianza estratégica con Fagor Electrónica.

Crece desarrollando una propuesta de valor basada en la función y sistemas, apoyándonos en red de alianzas, en compras inorgánicas,

Desarrollamos alianzas tecnológicas, industriales y de mercado, para fortalecer nuestro liderazgo global con presencia local.

Ejercicio 2022

COPRECIk eta FAGOR ELECTRONICAK lankidetzan aritzeko eta elkarren partner izateko aliantza bat sinatu dute, eta, aliantza horrekin, COPRECIk lider global gisa duen posizioa indartzen du, elektronika integratz eskaintzen duen osagaien eta sistemen balio proposamenean.

Produktu, sistema eta soluzioen garapenean, 30 urte baino gehiago dira jada Coprecik aplikazio desberdinetarako garatzen duen elektronika integratzen duela, eta, Fagor Electronicako fabrikazioarekin batera, balio proposamen bat ematen du, non elektronikazioak eta digitalizazioak hamaika funtzio eta prestazio gehiago eskaintzen dituzten.

Aliantza hori haratago doa, eta aukera ematen digu sektorerako elektronikak fabrikatzeko alternatiba bat


eskaintzeko. Fagor Electronicak ekoizpen zentroak ditu Espainian, Thailandian eta Mexikon, eta, duela gutxi, eraikina eta instalazio berriak partekatu ditu Coprecirekin Turkian. Horrela, aliantzak hazkunde eta lidergo estrategian laguntzen dio Copreciri, osagai elektronikoek eta elektronikoa duten sistemek ere maila globaleko alternatiba bat behar baitute.



Ejercicio 2022

Copreci eta E-COMP proiektua

COPRECIk e-COMP I+G+Bko proiektuan parte hartzen du, zeinarekin ezagutza berriak eskuratu nahi den, eta I+G+Bko Konpetentzia Birtualeko Zentro bat zehaztu, garatu eta abian jarri, osagai elektroniko eta erdieroaleen arloan lankidetzazko ikerketan eta diziplina anitzekoan laguntzeko mekanismo digitalak eta metodologikoak eskaintzeko gaitasunarekin. ATEGI, COPRECI, EIKA, FAGOR ELECTRONICA eta ORKLI enpresek eta MONDRAGON Korporazioko Osagaien Dibisioak sustatzen dute e-COMP proiektua.



Ejercicio 2022

Copreci Mael erosi du

Coprecik Zaragozako MAEL Cocción enpresa familiarraren %100 erosi du. Enpresa horrek BSH Electrodomésticos España (Bosch, Siemens eta Balay) enpresari osagaiak hornitzen dizkio, indukzio sukaldeetarako bobinas_fokuak fabrikatzen espezializatuta dago-eta.

Operazioarekin, Coprecik indukzio soluzioetan espezialista gisa duen posizioa indartu du, merkatuko nitxo horretan Europako fabrikatzaile independente nagusietako bat baita.

Mael Coccion erosi ondoren, Copreciren asmoa da etxetresna elektrikoetarako eta indukzio sukaldeetarako osagaien negozioan hazten jarraitzea,

merkatu tradizionaletan duen posizioa sendotzeko eta herrialde berrietan duen presentzia indartzeko. Hazkunde inorganikoa Copreciko bide orriaren partea da, kooperatibak estatuan eta nazioartean hedatzeko dituen bideetako bat gisa.



Ejercicio 2022

"Egiptoko lantegiak etorkizunerako aukera berriak zabalduko dizkigu"

Coprecik urte asko daramatza lanean Egipton eta gas sukaldeetarako soluzioen erreferentea izaten bertan. Orain, tokiko bazkideen eskutik, beste pauso bat eman du herrialdean etxetresna elektrikoaren sektoreko enpresek dituzten erronka teknikoetan eta hazkundekoetan modu lokalean laguntzeko.

Planta berri hori 2023ko apirilean hasiko da

fabrikatzen seriean. Ezarpen berri bat, munduan jada ezarrita daudenei batuko zaiena eta eskualdean, gero eta interesgarriagoa den merkatuan, produktuen katalogoa zabaltzea ahalbidetuko duena.

Coprecik Fresh Electric, EBDA eta El Araby-rekin hitzarmena sinatu du Egipton kokatzeko

Joan den abenduaren 13an Coprecik akordioa sinatu zuen Fresh Electric, EBDA eta El Araby tokiko bazkideekin. Akordio honen bidez, 7,6 milioi dolar inbertituko dira Egipton kokatzeko den lehen lantegian eta horri esker, 15 milioi segurtasun-balbula ekoiztuko dira gasezko sukaldeetarako.



5.2.2. Balio sortzea. Ekonomia zirkularra.

Ekonomia zirkularrak kultura aldaketa dakar ekoizpen eta kontsumo sisteman, baliabide faltari, ingurumen inpaktuari, balio sorkuntzari eta enpleguari aurre egiteko. OPRECIrentzat iraunkortasuna eta berrikuntza ardatz estrategikoak dira bere Politika Sozioenpresarialean, eta ekonomia zirkularra funtsezko elementua da garapen iraunkorrerako, negozio eredu berriak eta baliabideak modu arduratsuan erabiltzeko moduak bultzatzen baititu.

Dimentsio eta posizionamendu egokiak dituzten aukerak eta proiektuak garatzen ditugu, egungo negozioak eraldatzeko aukera ematen digutenak, hazteko aukera berriak sortuz eta

merkatuari balio proposamen jasagarri berriak emanez, ekonomia zirkular baten inguruan.

Epe ertain-luzerako estrategia horren garapenean, COPRECIk ekonomia zirkularreko proiektuetan parte hartzen du, honako helburu hauekin: hondakinen sorkuntza murriztea, egun merkatuan dauden produktuen materialak erabiltzea, energiaren eta materia birjinen kontsumoa murriztea, produktuen eta prozesuen jarraipenerako teknologiak ezartzea, eta ekonomia zirkularren inguruan negozio eredu berriak sortzea.

Ejercicio 2022

Ekoiztea, kontsumitzea eta botatzea oinarri dituen ekonomia lineal batetik hondakinen sorkuntza murriztera, produktuen bizitza baliagarria luzatzera eta ondoren berrerabiltzera bideratutako beste batera pasatzea.

Hori da MONDRAGONek COPRECIk parte hartzen duen Replay proiektu zirkularrean hartutako konpromisoa: IA, Big Data eta pasaporte digitala Blockchainekin, eredu teknologiko zirkular eta iraunkor baterako.

Zirkulartasuna etorkizuneko joera bat da, eta industria behartuko du material birziklatuak eta osagai berreskuratutako erabiltzera, baina baita produktuen diseinua, fabrikazioa eta erabilera eraldatzera ere.

Gainera, lankidetzako ekosistemak sortzera bideratutako ildo estrategikoak ditugu, horien bidez gure balio proposamenean iraunkortasunaren eta zirkulartasunaren inguruan aukera berrien garapena bultzatzeko.

“Gure balio katearen zirkulartasunaren inguruan aukera berriak garatzen ditugu”.



Ejercicio 2022

Sustatzaileek berrikuntza eta ekintzailtza teknologikoa bultzatuko dute, enprekin eta beste eragile batzuekin, industria trantsizio iraunkor eta bidezko baten mesedetan.

HIREKIN interkooperazio espazio bat izango da, gizartera irekia, eta sustatzaileen artean MONDRAGON eta Copreci kide duen Fagor Taldea egongo dira. Mondragon Unibertsitatearekin batera, berrikuntza eta ekintzailtza teknologikoa bultzatuko da enprekin eta beste eragile batzuekin, industria trantsizio iraunkor eta bidezko baten mesedetan. Ingurumenerako, ekonomiarako eta gizarterako industria iraunkorragoa garatuz gizarte bidezkoagoa sustatu nahi duten enpresa eta ezagutza eragileen topalekua izango da.

HIREKINen garatzen diren proiektuak fabrikazio teknologia aurreratuetan, prestazio handiko

materialetan, energia berriztagarrietan, mugikortasun elektrikoan, muturreko baldintzetako portaera mekanikoan, automatizazioan, robotikan eta, oro har, digitalizazioan oinarrituko dira.

Coprecik, gainera, unibertsitateak dituen industria ekipamenduak erabili ahal izango ditu, laborategi eta tailer espezializatuen 10.000 metro koadro baino gehiagotan

Ezaugarri industrialak dituen espazio bat izan nahi du, inguruan ditugun enpresentzat ekintzailtza eta dibertsifikazio industrialeko ekintzak sustatu eta katalizatuko dituen eta industria ehuna berritzen eta ingurumenarekin errespetuz jokatzeko lagunduko duena.



06 Aberastasuna sortzen dugu Garapen Komunitarioa bultzatzen dugu



6. Aberastasuna sortzen dugu eta garapen komunitarioa bultzatzen dugu gure inguruan

“Lankidetzeta eta autoantolaketa komunitarioa bultzatzen dugu, Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko”

Duela 60 urte baino gehiago sortu ginen komunitatearen beharrei erantzuteko; beraz, gure jatorriak inguruko komunitatean bertan daude errotuta. Gizartearen erronkak gureak ere badira, eta gainerako kooperatibekin, eragile sozialekin eta administrazio publikoekin lankidetzan ari gara, XXI. mendeko erronka zahar eta berrietarako erantzunak bilatzen.

Mende berriak erronka berriak dakartza, eta premiazkoa da lurraldeek, enpresek bezala, iraunkortasunerako trantsizioa egitea. Gure enpresa kooperatiboaren eredua gai da aberastasuna ekitatez sortzeko eta banatzeko. Kooperatibek gizarteari egiten dioten ekarpena kualitatiboa, integrala eta epe luzekoa da. Aberastasuna ez da kapital finantzarioaren arabera soilik neurtzen, kapital sozialaren arabera ere neurtzen da. Etengabe bilatzen da aberastasunaren sorrerak gizartean inpaktua izatea.

Enpresa jardueratik haratago, jarrera proaktiboa dago eta agerikoa da ingurunearen ongizatean zuzeneko eragile gisa jarduteko dagoen borondatea, izan ere, hurbileko inguruneko kultura, elkartasun eta ingurumen alderdiak zainduz, pertsonak eta haien lan bektorea osatzen duten alderdiak

zaintzen ari dira.

Sortutako aberastasunaren barne banaketa elkartasun adierazpen bat da. Baliabideak birbanatzen ditugu, hainbat funtsen bidez eta ekonomia, ingurumen eta gizarte garapenerako ekimenak bultzatuz, gauden lekuetan.

COPRECI, Korporazioko kide den heinean, eta taldearen printzipio kooperatiboetan oinarrituta, eraldaketa sozialaren esparruan ere partekatzen ditu bere gizarte eta enpresa politikan zehaztutako erronka estrategikoak.

Korporazioaren 2021-2024 aldirako Politik Sozioenpresarialak inguruan eragin sozial positiboa sortzeko duen bokazio garbia jasotzen du BISIO moduan:

MONDRAGON Taldea bera presente dagoen lekuetan ehun sozioenpresarial indartsuak eta solidarioak sortzen laguntzen duen errealitate bat da.

Bere 2 erronka estrategikoen bitartez:



“Baliok bizi”: gure eredu kooperatiboa eta pertsonen konpromisoa, enpresa beste modu batean, solidarioago eta iraunkortasunarekin eta eraldaketa sozialarekin konprometituago egitea ahalbidetu behar diguten bereizgarriak dira.

“Mundu hobe bat egin”: kooperatiben legatuan sinesten dugu, hurrengo belaunaldiei, kooperatiba sendoagoak eta hobeak ez ezik, pertsonentzat eta planetarentzat garapen eredu hobe utzita.

“Garapen Iraunkorreko Helburuetan oinarrituta, gizartea eraldatzeko dugun bokazioa indartu nahi dugu, erreferente izan nahi dugunengan fokalizatuz”.

Ejercicio 2022

2022an, COPRECIk 183.393 euro bideratu zituen funts horretara, hainbat esparrutan dauden beharrei erantzuteko eta gizartearen hainbat proiekturi/eragileri laguntzeko. Fagor taldearen ekarpen ekonomikoa, guztira, 1.076.652 eurokoa izan zen.

COPRECIk Eraldaketa Sozialeko Batzorde bat du, eta Kontseilu Errektoreko, Kontseilu Sozialeko eta Zuzendaritzako kideak eta bazkide boluntarioak biltzen ditu bertan; alde batetik, FAGOR Taldeak garatutako eraldaketa sozialeko proiektuen jarraipena egiten da, eta, bestetik, kooperatibak berak bultzatu beharreko jardueren proposamenak egiten dira.

Sustapen eta Heziketa Kooperatiboko Funtsak Taldea osatzen duten kooperatiben urteko irabazien %10ekin elikatzen dira, Euskadiko Kooperatiben Legeak ezartzen duen bezala. Gainera, COPRECIk %2 gehiago bideratzen du funts horretara, eraldaketa sozialarekin dugun konpromiso irmoaren erakusgarri.

(milaka eurotan)	2018	2019	2020	2021	2022
Taldearen IPDK funtsa (€)	3.303	2.039	3.254	1.076	2.410
Copreci S.Coop.en ekarpena	456	198	248	183	428

Barne araudia erreferentziatzen hartuta, 2022ko funtsak hainbat eremutara esleitzea erabaki zen, honela:

	ERABILGARRIA GUZTIRA	HEZKUNTZA SUSTAPENA %25 269.163 €	SUSTAPEN SOZIAL ETA KOOPERATIBOIA (60-65) %65 1.566.396 €				DISTRIBUZIO KOMUNITARIOA (10-15) %10 240.984€	
		Hezkuntza Kooperatiboa %25	Gizarte Berrikuntza Plataforma %25	Euskararen Normalizazioa (20-25) %24	MUNDUKIDE (10-12) %10	Interkooperazioa /koop. sustapena (3-7) %6	Gizarte Eraldaketa proiektuak kooperatibetan (2-7) %2	Kooperatibak %8
COPRECI	428.000 €	107.000 €	107.000 €	102.720 €	42.800 €	25.680 €	8.560 €	34.240 €
TOTAL	2.409.840 €	602.460 €	602.460 €	578.362 €	240.984 €	144.590 €	48.197 €	192.787 €

GIZABIDEA Fundazioa, lurraldeko hezkuntza eragile kooperatiboak, eskualdean kalitatezko hezkuntza eskaintzeko behar diren azpiegiturak finantzatzen lagunduz. 2022an hainbat hitzarmen sinatu ditugu MGEPEkin, HUHEZlrekin eta Arizmendi Ikastolarekin, hamarkada batean diruz lagundu beharreko proiektuak zehaztuz.

Guztira, 2022an, 602.460 € bideratu ditugu Gizabidea Fundaziora.

DEBAGOIENA 2030 lurraldearen garapen iraunkorra bultzatzeko sortutako sarea da. Debagoiena eskualdearen iraunkortasunerako trantsizioa, bailarako eragileen arteko lankidetzan (unibertsitatea, erakunde publikoak, enpresak eta gizarte eragileak). Europako Itun Berdean zehaztutako erronkei erantzutea du helburu nagusi. Horretarako, askotariko ekimenak eta proiektuak lantzen ditu. Europako Itun Berdean jasotzen diren eta Debagoiena 2030ek lehentasunezko zatitza jotzen dituen arlo nagusiak honako hauek dira:

- Industriaren eraldaketa ekonomia zirkularrerantz.
- Energia trantsizioa.
- Mugikortasun iraunkorra eta adimenduna.
- Tokiko elikagaien ekoizpena.
- Ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzea eta berreskuratzea.

2022an, arreta berezia jarri da energia trantsizioaren portfolia lantzen, energia komunitateen garapenean inplikazio berezia izanik. Eskualdean sortzen ari diren energia komunitateetako bazkide laguntzaile izateko konpromisoa hartu dugu, eta energia komunitateen esku jarri dugu kooperatiben administrazioan eta kudeaketan dugun esperientzia. 2022an 335.400 €-ko ekarpen ekonomikoa egin diogu Leintz bailararen Ekiola proiektuari (energia berriztagarriak).

Guztira, 2022an, 937.860 € bideratu ditugu DEBAGOIENA 2030 proiektura.

EUSKARA.

Fagor Euskaraz-en barruan sartzen da kooperatibetan euskara planetan (kultura hizkuntza) inbertitzeko partida. Oro har, Taldearen zein kooperatiben euskara biziberritzeko planak eta horietan zehaztutako ekintzak finantzatzeko ekimenetara bideratu dugu partida.

Bideratutako dirua -> 578.362 €

Garabide, hizkuntza gutxituak berreskuratzeko prozesuetan laguntzen duen erakundea da, euskararen suspertze prozesuaren ikaskuntzak beste herrialde batzuetako prozesuekin partekatuz eta bere esperientzietatik ikasiz. Komunitate horiekin lan egiten du, hizkuntza berreskuratzeko prozesuarekin haien garapen sozioekonomikoa aberasteko.

2022an 10.000 € bideratu ditugu Garapen elkartera.

GARAPENERAKO LAGUNTZA MUNDUKIDE Fundazioa

Kooperatibismoaren bokazio unibertsalari erantzuteko eta garapen bidean dauden herrialdeei garapen komunitarioko prozesu endogenoak sortzen laguntzeko, duela hamar urte baino gehiago sortu genuen Mundukide Fundazioa, MONDRAGONeko beste kooperatiba batzuekin eta tokiko Gobernu Kanpoko hainbat Erakunderekin batera. Mundukidek, batez ere, Mozambiken eta Brasilen garatzen du bere lana, eta urteak daramatza, filosofia kooperatiboarekin bat etorrituz, bere komunitateen garapen endogenoa sustatzen. Patronatuaren parte gara. eta Fundazioaren erronketan aktiboki parte hartzen dugu. Bere jardura finantzatzeaz gain, gure kooperatibetako bazkideek aukera dute Mundukidek programak dituen herrialdeetan kooperante gisa parte hartzeko.

2022an, 230.984 € bideratu ditugu Mundukide Fundaziora, 1. GIHarekin (Pobreziaren amaiera) dugun konpromisoaren erakusgarri.



FAGOR KOMUNITATEA (Interkooperazioa)

Gure asmoa da Garapen Iraunkorreko Helburuekiko konpromisoa, konpromiso instituzionala ez ezik, Taldea osatzen dugun pertsonen konpromisoa ere izatea. Horretarako, parte hartzeko aukera desberdinak eskaintzen dizkiegu gure pertsoneri.

Eraldaketa Sozialeko Batzordea, kooperatibetako ordezkari osatuta, ildo hori lantzeko organo arduraduna da, eta honako hauek dira bere konpromiso nagusiak:

- Fagor Mugi PROIEKTUA, mugikortasun iraunkorra bultzatzeko. 413.106 km dira Fagor Taldeko bazkideek eta langileek garraiobide iraunkorrako batean egindakoak (horietatik ia erdiak bizikletaz egin dira).
- Kontsumo indibidualen ohituretan eragitea, tokiko proiektuei ikusgarritasuna emanez eta erosketa arduratsua sustatuz; energiaren kontsumoaren inguruan sortzen ari diren komunitatei buruzko informazioa eskaintzea (tokiko

eta eskualdeko mailan).

-Gizarteratzea ardatz duten proiektuen jarraipena eta horietan parte hartzeko aukeren analisia.

- Hainbat gizarte eragilerekin lankidetzak bideak indartzea, funts horren zati bat banatzeko prozesu berri bat diseinatuz, Euskal Herri osoko elkarteei parte hartzera gonbidatuz eta Fagor Taldeko pertsonen zer proiektu lagundu erabaki ahal izateko bideak sortuz.

Horri guztiari erantzuteko, 2022ko hasieran tresna digital berri bat atera genuen, barne komunikazioa eta Fagor Taldeko pertsonen parte hartzea bultzatzeko: Fagor Elkarrekin.

Aipatutako ekimen batzuek zuzenean erantzuten diote bazkideak aktibatzeari.

Ondoren, COPRECIk eta FAGOR taldeak 2022an sustatutako proiektu sozialen zerrenda sartzeko da:

Proiektua	Azalpena	COPRECI	TALDEA
DEBAGOIENA 2030 (webgunearen esteka)	Eskualdearen garapen iraunkorra bultzatzeko sarea. Bisioa: lurralde adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izatea, garapen komunitarioaren bidez.	107.000 €	602.460 €
GIZABIDEA	Hezkuntza sustapena: kooperatiben ingurune sozialeko ikastetxeen programak eta inbertsioak abian jartzeko laguntza, heziketa kooperatiboa sustatuz.	107.000 €	602.460 €
EUSKARAREN NORMALIZAZIOA	Kooperatibetan euskara normalizatzeko eta sustatzeko planak laguntzea.	102.720 €	578.362 €
MUNDUKIDE	Hegoaldeko herrialdeekiko lankidetzak.	41.024 €	230.984 €
GARABIDE	Esperientziak, ezagutza eta baliabideak partekatuz, autogestioa eta lan kooperatiboa sustatuz.	1.776 €	10.000 €
ZAPOREAK	Herriei hizkuntza gutxituak berreskuratzen laguntzeko elkarteak	FAGOR HERRIGINTZA PROGRAMA (Funtsak)	60.000 €
SMH	Elikadura duin eta osasungarria Kara Tepeko (Lesbos, Grezia) errefuxiatuentzat		40.000 €
SEASKA	Itsas Salbamendu Humanitarioa. Osasun laguntza eta arreta migrazio krisian.		20.000 €
FAGORMUGI	SEASKA Ikastolen Elkarteak. Senperen ikastetxe berri bat eraikitzea.		30.097 €
FAGOR Elkarrekin	Lantokira joateko joan-etorrietan mugikortasun iraunkorra bultzatzea		15.100 €
HAZIA MUSIKALA	Bazkideek eraldaketa sozialeko proiektuetan parte hartzea sustatzeko aplikazioa		14.874 €
EITB Maratoia (Alzheimer)	Arizmendiari buruzko Antzezlan Musikala.		12.000 €
	Alzheimerri buruzko ikertze kanpaina.		

Proiektua	Azalpena	COPRECI	TALDEA
UNICEF - Ukraina	Ukrainako gerragatik Ukrainako haurrei laguntzeko kanpaina		10.000 €
AZARO Fundazioa	Lea-Artibai eskualdearen garapena, hezkuntza zentroek kooperatibekiko talentua erakartzea bilatuz.	743 €	4.146 €
Instituto de los Pueblos de Europa	Ukrainako gerrak eragin dituen migratzaileak lekualdatzeko eta hartzeko laguntza	8.000 €	
COPRECI MEXICO	Chiapasko gazteak lan munduan sartzeko prestakuntza	3.500 €	-
COPRECI MEXICO	Tapoi solidarioaren kanpaina: bilketa solidarioa, minbizia duten haurrei laguntzeko.	850 €	
GUHAZIAKGARA	Etorkinei Laguntzeko Elkarte (Aretxabaleta)	5.004 €	-
DRAGOI Gimnasia Taldea	Dragoi Taldea – Arrasateko Emakumeen Gimnasia Taldea	300 €	-
Altsasuko duatloia	Altsasuko duatloiaaren antolaketa	300 €	-
Arizmendi Kirol Elkarte	Leintz bailarako kirol kluba	300 €	
Patin Sakana Irrisketa Taldea	SAKANA irristaketa kluba Altsasun	300 €	
PILOTAJAKU (Altsasuko pilota)	Altsasuko pilota kluba	300 €	-
UDA (Unión dep. Aretxabaleta)	Hezkuntza eta garapena kirolaren bidez	1.000 €	-
Arrasate Saskibaloia Taldea	Arrasateko Basket Kluba	300 €	-
MONDRA Futbol Eskola Elkarte	Arrasateko futbol kluba	300 €	-
LORAMENDI ELKARTEA	Integrazioa eta hezkuntza euskararen bidez	900 €	-
AMS Mundu solidarioa	Garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko GKEa.	2.000 €	-
Zazpi Proiektua	ELAren gaixotasunaren sentsibilizazio programa (Mikel Lizarralde)	300 €	
Atxorrotx Kultur Elkarte	Kultur Elkarte – Erreka Gora Programa	500 €	
Nicolas Arbizu	Altsasuko S. Coop.eko bazkide ohiaren liburu historikoa argitaratzeko laguntza.	500 €	
NDANK	Kulturartekotasunaren eta euskaldunen eta senegaldarren arteko garapenerako lankidetzaren sustapena	1.800 €	-
GIPUZKOAKO Elikagai Bankua.	Zailtasunak dituzten familiei oinarrizko elikadura eskuratzea ahalbidetzea.	1.750 €	-
GURABARRI	Kurtzebarriko HH-LHko guraso elkarte. (DBH)	300 €	
BATERA	Kurtzebarriko BHIko (Batxilergoa) guraso elkarte.	300 €	
Kukumiku Guraso Elkarte	Aretxabaletako haur eskolako guraso elkarte	300 €	



Bazkideek 2022ko proiektuetan parte hartzea:

• **UKRAINAko Errefuxiatuak kanpaina:** gerra piztu zenean, Europako Herrietako Erakundearen laguntzarekin, 15 errefuxiatu -emakumeak eta haurrak- EAera ekartzea lortu genuen. Hortik aurrera, gure bazkideei/langileei LAGUNTZEKO kanpaina bat ere jarri genuen abian, 2 helbururekin:

- o EMAKUMEENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO/HAURRENTZAKO ARROPA JASOTZEA Haur txikientzat jostailuak ere jaso genituen. Kamioi bat bete zen, elkartasun olatuarekin
- o ETXEBIZITZA bat eskaintzea -->Copreciko 2 bazkidek beren etxea eskaini zieten
- o DIRU EKARPENA --> ekarpenak nominaren bidez.

Horrela, 1.662 euro bildu ziren. Diru horrekin EROSKI opari txartelak erosi genituen, familiek eguneroko oinarrizko beharrei aurre egin ahal izateko, gobernu laguntzak izapidetzea lortzen zuten bitartean.

• **FAGORMUGI proiektua**

• **FAGOR HERRIGINTZA proiektua**



07 Txostena egiteko prozedura



7.1. Txostena egiteko prozedura

Dokumentu honek COPRECIren Informazio Ez Finantzarioaren Egoera aurkezten du, honako hauek ezarritako eskakizunekin bat etorritz: 11/2018 Legea, abenduaren 28koa, Merkataritza Kodea aldatzen duena; Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; eta 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzari buruzkoa, informazio ez finantzarioari eta aniztasunari buruzkoa. Era berean, Taldearen Iraunkortasun Memoria gisa aurkeztu da (urterokoa).

Txostena, COPRECI Taldearen bilakaera, emaitzak eta egoera eta bere jarduerak 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra ingurumen, gizarte eta ekonomia gaitan duen inpaktua ulertzeko behar den informazioa jasotzen duena, GRI Estandarrak metodologiaren arabera egin da, Funtsezko aukerarekin bat etorritz, eta COPRECIk bere interes taldeei ematen dien garrantzia eta iraunkortasunaren alde egiten duen apustua adierazten ditu, Taldearen jardura ekonomikoa garapen sozial eta ingurumenekoa denboran iraunkorra izatea ahalbidetzen duten oinarritzko printzipioekin lerrotatuta egotea bermatzeko, aldi berean Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuetan lagunduta.

Txosten hau egitea gardentasunez jokatzeko eta kontuak emateko modua da argi eta garbi, eta, hori ez ezik, kudeaketa prozesuak eta Taldearen estrategia hobetzen ere laguntzen du, epe laburrean eta ertainean gauzatu ahal izango diren hobekuntza aukera berriak identifikatuz.

Txostena egiteko prozesuan Gerentziak eta COPRECIko arlo nagusietako arduradunek parte hartu dute zuzenean, baita Taldeko Kontseilu Errektoreko lehendakariak ere, bazkideen ordezkari gisa.

Sartzen den informazio guztia enpresa matrizearena eta COPRECI Taldea osatzen duten eta kontu bateratuetan aintzat hartu diren filial guztiena da.

- MAEL COCCION S.L. 50014 ZARAGOZA, ESPAÑA
- MAELITZ S.L. 50014 ZARAGOZA, ESPAÑA
- SOLUCIONES TECNOLOGICAS INTEGRACION Y AUTOMATIZACION S.L. 50014 ZARAGOZA, ESPAÑA

7.1 Gai materialak definitzeko prozesua

Iraunkortasunarekiko konpromisoa COPRECIren parte da eta bere jardueraren garapenean berezko zerbait da. Horren erakusgarri, bere iraunkortasun estrategiaren diseinua egin da, eta, horretarako, COPRECIk materialtasun bikoitzaren analisi prozesua egin du, iraunkortasunari buruzko gai garrantzitsuak finantzen ikuspegitik eta gizarte, ingurumen eta gobernantza arloko inpaktuaren ikuspegitik (ASG alderdiak) identifikatzeko. Prozesu horrek aukera ematen du 11/2018 Legeak informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan egindako errekerimenduari erantzuteko.

7.1.1 Gure interes taldeak

COPRECIk honako interes talde hauekin duen konpromisoa erakusten du.

Interes taldeak - BARRUKOA

COPRECI TALDEKO bazkideak - langileak

Interes taldeak - KANPOKOA

Bezeroak, bezero-partnerrak eta erabiltzaileak

Hornitzaileak, Laguntzaileak, Interkooperazioa eta Aliantzak.

Gizartea, komunitatea eta gizarte erakundeak

Jaurlaritza eta Herri Administrazioa

Bazkideak_Langileak

Kooperatiba batean, bazkide langileek alderdi bikoitza dute, barneko zein kanpoko interes talde gisa. Iraunkortasuna kudeatze aldera, interes talde hori kanpoko taldetzat jo da, izan ere, kooperatibako langileak diren heinean, bazkideek hainbat behar eta itxaropen dituzte lan, segurtasun, ordainsari, kontziliazio, prestakuntza eta abarrei dagokienez, eta horiek entzun eta zaindu egin behar dira.

Bezeroak

Interes talde bat da, eta oso aktibo agertzen da iraunkortasunaren arloan inplikatzen eskatzen baitugu, dela ekonomikoaren ikuspuntutik dela ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik. Gero eta nabarmenagoa da alderdi horiei ematen zaien garrantzia, proiektuak esleitzean gu homologatzeko eta gu ebaluatzeko erabiltzen diren irizpideetan. Gainera, bezero gehienak korporazio multinazional handiak dira, eta horrek ere eragina dauka, traktore efektua baitute beren hornidura kate osoan, non gu parte bat garen.

Hornitzaileak, laguntzaileak, aliantzak

Interes talde horrek ez dauka joera handirik bere beharrak eta itxaropenak proaktiboki azaltzeko. Hala ere, gure industria ereduaren ezaugarriak, batez ere ingeniari-tza enpresa gisa identifikatzen gaituenak, egiten du hornitzaileekin eta batez ere lehengaien hornitzaileekin dugun mendekotasuna eta beste enpresa laguntzaile eta/edo aliatu batzuekiko tratua gero eta garrantzitsuago izatea.

Administrazioa

Erregulazio, araudi eta legeen bidez, Administrazioak bere egungo beharrak agintzen ditu, eta horiek kontuan hartu behar ditu COPRECId. Erregelamendu bidez zehaztutako behar horietatik haratago, identifikatu beharreko beste behar eta itxaropen batzuk izan ditzakete, horietatik eratorritako etorkizuneko aukerak eta arriskuak ebaluatzeko.

Gizartea_Komunitatea eta Erakunde Sozialak

Ezarrita gauden inguruneetan beste kezka sozial batzuk daude, hainbat erakunderen bidez bideratzen direnak, askotariko eremuetan, eta epe luzera eragin gaitasuna metatzen dutenak, bai erregulazio berrien bidez, bai gure erakundera zuzeneko eta zeharkako eskarien bidez. Horregatik uste dugu gure interes taldea dela.

Interes talde horien garrantziari dagokionez, lan jardunaldi batean ezarri zen eta han identifikatu zen bazkide langileen, bezeroen eta hornitzaileen pisu espezifiko kanpoko gainerako interes taldeena baino nabarmen handiagoa zela. Interes taldeekin komunikatzeko hainbat kanal erabiltzen ditugu.

Talderik esanguratsuenei dagokienez, inkestak erabili dira

